

Iván Giménez:
**“Erregimenak ez du Nafarroa
galdutzat emanen”**



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Añña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzeriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko ekainaren 14a, 2.465. zenbakia

ASTEKO GAIA

ELIKADURA BURUJABETZA Nekazariak eta gizarte eragileak hordago txikira. ANTOKA AGIRRE / 4

PERTSONAIA

CARMELO ORTIZ DE ELGEA: «Margolana hondatzea, margotzeko abenturaren barruan dago». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

HEZKUNTZA Montessori ereduaren hezkuntza publikoan integratzeko lanean. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

NEPALEKO LURRIKARAK Nepalaren Euskal Herriko komunitatearen txanda. LANDER ARBELAITZ MITXELENA / 19

IRITZIAREN LEIHOA

ZER EGIN GURE PRIBILEGIOEKIN? JUNE FERNÁNDEZ / 20

BOTO MUGIKORRA MIKEL IRIZAR / 22

MAILA BAT GORAGO IÑAKI MARTINEZ DE LUNA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 21

TXANDAN Kopia arriskutsurik ez. EDU ZELAIETA / 22

BERTSO BERRIAK Marotori jarriak.

ANDER SOLOZABAL KORTABARRIA / 23

ERDIKO KAIERA

ARTE PLASTIKO ETA BISUALAK Guggenheim efektupean ere, diziplina ikusezinak. DANELE SARRIUGARTE MOCHALES / 25

DONOSTIA 2016 Nola konpondu den bi astean lau urteko "desastrea". GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 28

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 33

IHESI HONDARRIBIA (GIPUZKOA) Historiarekin ezkutaketan. AITOR KALTZAKORTA / 34

IHESI ZUIAKO KUADRILLA-GORBEIA (ARABA) Etxean bezala Gorbeian. ERIKA BELAR / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 38

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 39

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

TERMOMETROA

IVÁN GIMÉNEZ: «UGTk eta CCOOk markatuko dute lehen urte politikoa». MIKEL ASURMENDI / 41

TELP TAILERRAK Euskaraz eroso aritzeko entrenatzen. TXERRA RODRIGUEZ / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 45

NET HURBIL Ezkertiar estetikaz mobilizatzen da eskuina orain. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Nekazariak eta gizarte eragileak hordago txikira

Duela bi hamarkada elikadura burujabetzaren aldeko apustua egin zuen Via Campesinak, munduko mugimendu sozial handienak. Euskal Herrian EHNE-Bizkaia eta ELB nekazari sindikatuek Etxalde mugimendua sortu dute. Multinazionalak, enpresa handiek eta gobernuak karta markatuekin dihardutela eta jokoan kanpo uzten dituela ikusita gero eta eragile gehiago ari da diskurtso eta praktika berri horien alde jotzen. Euskal Herriko ordezkari bat Brasilen izan da berriki, bide horretan emandako zenbait pauso ezagutzen.

| ANTOKA AGIRRE |

2017AN EUSKAL HERRIAN egingo da Via Campesinaren Munduko Konferentzia. Lau urtean behin egiten da biltzar hori, eta Euskal Herrikoa zazpigarrena izango da Mons (Belgika, 1993), Tlaxacalan (Mexiko, 1996), Bangalore (India, 2000), Sao Paulo (Brasil, 2004), Maputo (Mozambike, 2008) eta Jakartakoaren (Indonesia, 2013) ondotik. Afrika, Amerika, Europa eta Asiako 73 herrialde eta 164 erakundetan antolaturiko 200 milioi nekazari, artzain, abeltzain eta arrantzale txiki nahiz ertain biltzen ditu Via Campesinak, eta Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea, Giza Eskubideen Kontseilua eta maila bereko nazioarteko erakundeen eztabai-

detan erreferente izatea lortu du. Konferentzia antolatzea sekulako erantzukizuna izango da, bada, euskal ordezkariarentzat, baina baita aurrera egiteko bultzada garrantzitsua ere.

Defendatzen dena eredu aldaketa bat da. Ongarri eta pestizida toxikoetan, transgenikoetan eta monolaborantzan oinarritzen den produkzio intentsiboak multinazional eta enpresa handiei bakarrik egiten die mesede, haiek bakarrik baitaude ongarririk, pestizidarik eta transgeniko horiek merkaturatzeko gaitasuna edota elikagaiak batetik bestera horrela mugitzeko behar den logistika.

Via Campesinaren arabera, eredu horrekin munduko elikadura premiak asetzeko behar

Passo Fundoko Terra e Vida kanpamenduko argazkiak. Okupaturiko lurak lantzetik bizi dira, beste 150.000 familia legez, plastiko beltzez estaliriko txaboletan eta epaileen kanporatze aginduaren mehatxuarekin.



BEATRIZ CASADO



DAVID LOPATEGI

den ekoizpenaren %150 produzitzera iritsi den arren, 900 milioi pertsona goseak daude oraindik, gehienak nekazariak. Eredu horren eskutik Euskal Herriko lehen sektorea jasaten ari den deslokalizazio prozesua ilustratzen duten datuak ere ematen ditu Etxalde: Euskal Herrian kontsumitzen diren barazkien %4 baino ez da bertan ekoitzia. European ahortzen ditugun elikagaiek batez beste 4.000 kilometro egiten dituzte gure mahaira iritsi aurretik. Eta joan-etorri horrek eragiten duen gastua gure poltsikoetan nabaritu ez dadin, ekoizleena hutsik gelditzen da. Hemengoei gaizki ordaintzen zaie, eta urrunekoei okerrago.

Elikadura burujabetzarekin, gertu ekoitzirikoaren kontsumoari eman nahi zaio lehentasuna, eta bitartekariei beharrean ekoizleei eta kontsumitzaileei eman nahi zaie elikagaien kalitateaz eta prezioaz erabakitze eskubidea. Bestalde, nekazaritza ekologikoa hartu nahi da ekoizpen eredutzat; horrela, tokian tokiko egiteko moduak babes-teaz gain, toxikoei eta transgenikoek ingurumenean eta kontsumitzaileen osasunean eragiten dituzten kalteak saihesten dira.

Txikira apustu egitea nekazari txiki eta ertainen alde egitea litzateke, handien neurria eginda dagoen logika neoliberal haustea, elikagaien ekoizpena negozio bat baino askoz gehiago dela defendatzea, elikatzeko eskubidearekin, osasunaren eta ingurumenaren babesarekin daukan harremana aldarrikatzea... Ez dauka zerikusirik, ordea, autokontsumoaz harago sos gutxi batzuk baino ematen ez dituen nekazaritzara atzera buelta

Brasilen, latifundioak okupatzen dituzten lurrik gabeko nekazarien mugimenduak 530.000 familia mugitzen ditu eta 160 kooperatiba jarri ditu martxan, baina 1.200 okupazio komunitatetara iristen den formazio sarea ere

Brasil: elikadura burujabetzaren aldeko mugimendu erraldoia

Via Campesinak txikitik gutxi dauka. Eta egin duen apustuak are gutxiago. Hain zuzen ere borroka globalizatzea izan da haren arrakastaren giltza. Hala, Hegoaldea eta Iparraldea elkarrekin jarri ditu lanean beti,

txanpon beraren bi aldeak direlakoan, eta beti bilatu izan ditu aliantzak bestelako gizarte eragileekin.

Eredu horri jarraiki antolatu zuten Etxalde, EHNE-Bizkaiak eta Bizilurrek, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Europar Batasunaren finantziarioz, joan den apirilean Brasilerako joandako euskal ordezkariak. Hiru mugimendu horiez gain, ELA, LAB, Bilgune Feminista, Ernai, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta, Udalbiltza, Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU eta eskualde eta udalen garapen agentzietako teknikariek osatu zuten ordezkariak, eta hamar egunez Brasil hegoaldeko hiru estatutan

Ezkerrean, Viamaoko asentamenduko baratze ekologikoak. Legezaturiko okupazioak dira asentamenduak, borroka luzeen fruitu. 380.000 familiak lortu dute estatus hori. Eskuinean, formazio politikorako Florestan Fernandes eskolaren eraikin bat.



ARRATE ITURBE



ARRATE ITURBE



elikadura burujabetzaren alorrean garatu diren hainbat esperientzia ezagutu zituzten.

Mugimendu erraldoia aurkitu dutela esan dute handik bueltan; brasildarren aldetik euskal bisitaren antolakuntza lanean ibilitako lau mugimenduen garapen mailak harrituta utzi dituela. MSTk, esaterako, latifundioak okupatzen dituzten lurrik gabeko nekazarien mugimenduak, 530.000 familia mugitzen ditu eta 160 kooperatiba jarri ditu martxan, baita 1.200 okupazio komunitatetara iristen den eskola eta formazio sarea ere. MABek, zentral hidroelektriko eta urtegien eraikuntzak lurrik gabe utzi dituen nekazarien mugimenduak, milaka kide eta ehunka komunitate biltzen ditu, eta energia ekoizteko hainbat proiektu alternatibo jarri ditu martxan. MPAk nekazari txikien nahiz MMCKo nekazari feministen mugimenduek, zerbait berriagoak eta apalagoak dimentsioz, sekulako grina eta ekimenerako gaitasuna dute.

Feministen komunitate beteranoa, Quilombon. Emakumeak aitzindari izan ziren elikadura burujabetza eta nekazaritza ekologikoaren aldeko apustuan, baita multinazionalen aurkako ekintzetan ere. Hala ere gogor borrokatu behar dute mugimenduaren barruan parekidetasuna lortzeko.

Mugimenduetako ordezkariak, sindikatuetakoak, ordezkari instituzionalak, asentamendu eta kanpamenduetako jendea, ingeniari eta teknikariak, unibertsitateko irakasle eta ikasleak, hazi kreolak berreskuratzeko kooperatibak, arroz eta barazki organikoak ekoiztera bideraturikoak, Azoka ekologikoa, feministek eraikiriko formazio zentroa, Sao Paoloko Udaletxea... “Ez sinestekoa da kontaktu egoekin eta gomendatzen direnak baino lo eta deskantsu ordu gutxiago eginda zenbateraino eman dezaketen hamar egunek Brasilen”, dio Saioa Iraolak, Brasilen egon den Bilgune Feministako kideak.

Ikusi eta ikasi

Ez da izan mugimenduaren dimentsioa deigarriena suertatu zaiena. Institutioekin lorturiko konplizitateak, esaterako, Euskal Herrian gaurdaino horrelakorik ez delako eman,

DENA PREST

Datorren ikasturterako testuliburuak eta ikasmateriala dagoeneko prest dituzu gure liburu-dendetan edo elkar.eus webgunean.

Etorri eta erreserba itzazu!

elkar

www.elkar.eus

ALGORTA · ARRASATE · BAIONA · BASAURI · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · HERNANI · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA

agian, jakin-min handiagoa piztu du. PAA programak gobernuak kudeatzen dituen erakundeen jangelei zuzenean saltzeko atak ireki dizkie nekazari eta abeltzainei (Elikadura Bankuak, ospitaleak, zaharren egoitzak, kartzelak eta abar). PNAE programak ezartzen du sare publikoko eskoletako jangelek %30, gutxienez, inguruko ekoizleei erosi behar dietela.

“Euskal Herrian legediak, eta horren atzean dagoen erabaki politikoak, ez du horrelako programa orokorrak ezartzea ahalbidetzen. Baina udalen esku dauden kontuetan bai egin daitezke gauzak, eta ari dira egiten”, adierazi du David Lopategik, Bilboko zinegotziak. Brasilgo mugimenduetako kideak kritiko agertu dira Lula eta Dilma Rousseffen Partido dos Trabalhadores-en gobernuekin, eta azpimarrazten dute haien apustu nagusia agroindustriaren aldekoa dela. Hala ere, aipatutako programak oso garrantzitsuak izan direla aitortzen dute.

Elikadura burujabetza lantokiko jangelatik hasita

Koaderno guztietan apuntatuta gelditu den beste kontu bat landa eta hiriaren arteko aliantza izan da: bai metalaren sektoreko bai Petrobras hidrokarburo-enpresa erraldoiko sindikatu nagusiek lantegietako jangelatan gertuko ekoizleen produkzio ekologikoa sartzeko akordioa jaso dute euren hitzarmen kolektiboetan. “Garbi dago elikadura osasuntsu baterako eskubidea, edo ingurumenarekiko kezka, ez dela nekazariari bakarrik dagokien kontu bat” dio Maitane Cabeza Bizilurreko kideak.

“Sindikatuan asko landu dugu elikadura burujabetza, trantsizio ekologikoa eta abar, baina kezka genuen ez genuelako asmatzen hori gure ekintza sindikalean txertatzen”, azaldu digu Unai Oñederra ELAko formazio arduradunak. Orain garbiago dauka: “Aztertu behar da zein enpresatan dauden jangelak, enpresa horietan nolako indar erlazioa dago-

Hazi kreolak ekoizten dituen kooperatiba, Sao Miguel do Oesten. Ahalegin handia egiten ari dira bertako haziak berreskuratzen, transgenikoekin ez direla kutsatu ziurtatzen eta merkaturatze lizentziak lortzen. Funtsezkotzat dute hori bertako aniztasuna, ingurumena eta nekazari-kultura babesteko. Baita multinazionalakiko menpekotasunik ez izateko ere.



DAVID LOPATEGI

en... Badago bidea sindikatuek elikadura burujabetzaren alde pauso konkretu eta eraikitzaileak emateko”. “Bultzatu nahi dugun ekonomia sozialagoarekin eta gizarte eraldaketarekin guztiz bat datorren planteamendua da elikadura burujabetza”, gaineratzen du Edurne Larrañaga LABeko zuzendaritzako kideak.

Euskal Herriratzeko modukotzat jotzen duten beste alderdi bat Brasilen borroka honek hartutako kontzientzia eta izaera kolektiboa da. “Oso garbi daukate zertan ari diren, elikadura burujabetzaren alde ematen duten pauso bakoitza klase borrokaren barruan ematen dela; oso garbi daukate elkar hartuta baino ezingo dutela egin bide hori”, diosku Endika Perez Ernaiko kideak. “Euskal Herrian gehiago dira borroka indibidual edo lokalak. Baten borroka alternatiboa, bes-



48210 Otxandio (Bizkaia)
 ☎ 945 461 412 / 605 771 479
www.nekatur.net/kerizara



Multinazional vs tokiko, bi eredu aurrez aurre

AZKEN HILABETEOTAN AEB eta Europar Batasuna (EB) merkataritza liberalizatzeko TTIP akordioa ari dira fintzen. Negoziazioak sekretuak izan dira, eurodiputatuak debekatu egin zaie dokumentazioa argitaratzea, baina aldi berean multinazionalak mahaiburuan egon ahal izan dute. Hala, asteotan EBk emerretzi labore transgeniko komertzializatzea baimendu du, eta osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen hainbat pestizida debekatzeari uko egin dio; indarrean dagoen ereduak are indartsuago bilakatze-ko pausoak eman ahal izan ditu, osasun arloan edo tokian tokiko produkzioaren babesari dagokionez EBk AEBen aurrean ezar zitzakeen “trabak” desagerraraziz. Horren aurrean, Via Campesinak apirilaren 17ko Nekazarien Borrokaren Eguna baliatu zuen TTIPek ekar dezakeena salatze-ko, baita Euskal Herrian ere.

Brasilen lehen sektorean ari-zen diren multinazionalen presentzia fisikoki hauteman daiteke milaka kilometro koadro betetzen dituzten transgenikoen monolaborantzetan, multinazionalak

gobernuan kokatu dituzten kideetan, edo mugimendu sozialekin komunikabideetan nahiz kalean izaten dituzten liskarretan. Geurean ez daukagu horrelakorik. Txanponaren beste aldea da tokatu zaiguna: kontsumitzen duenaren %5 bakarrik ekoizten duen Iparralde Globalaren blokean kokatu dute Euskal Herria; deslokalizazioa, sektorea desagerraraztea da multinazionalak erabakitako patua.

Sarea ehuntzen

Erantzuna hasia da, ordea, presentzia irabazten. Egunkariko zutabeen, hauteskunde kanpainako ekitaldian, barazki otarre eta haragi paketeen joan-etorrian, eskolako guraso bileran, hitzaldien kartelean, kontsumo sareetan... Gero eta sarriago irakurri edo entzuten dira elikadura burujabetza, nekazaritza ekologikoa edo nekazaritza jasangarria —ekologikorako trantsizioztat hartzen dena— kontzeptuak.

Zerain Dezagun Fundazioa, Lurzaindia, Ekolapikoa, Esnetik kooperatiba, EH Hazien Sarea, Uribe Kostako Agroasanblada,

Bertatik Bertara proiektua, Neka-sare, Urduñako ekoizpen zerbitzua, Larrabetzuko udal jangelak, BasHerria, Errigora proiektua, Bide Berriak dokumentala, Lane-ko kooperatiba, Arratiako Agroasanblada, Aramaioko elikadura eta energia burujabetza proiektuak, Idoki, Sopolako elikadura jasangarriko proiektua, Bedarbide Elkarte, Erriberako Sare Agroekologikoa, Basaburu... Ale txiki askok osaturiko sarea ari da ehuntzen.

Plano orokorrageo batean Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren Aldeko Eragileen Aliantza eratu da, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak ere jasotzen du elikadura burujabetza, UEU eta EHU hasiak dira ikastaroak ematen, eta Etxalde bera ere ari da bidea egiten.

Gizarte moderno batek lehen sektorea atzean utzi beharko ote zuelako errezeloa zabaldu zen duela hamarkada batzuk geurean; lehen sektorea atzean uzten duen gizarte batek menpekotasun handiegiak jasan beharko ote dituelako errezeloa ari da zabaltzen orain.

tearen bizimodu hippya, seme-alaben elikaduraz arduratuta dauden gurasoak... Ez daki- gu hori guztia estrategia orokor batean kokatzen”, iritzi dio David Lopategik. “Hain zuzen hori bideratu nahian sortu da Etxalde”, zehaztu du Alazne Intxauspe Etxaldeko zuzendaritzako kideak.

Guztiak bat datoz brasildarren sendotasun ideologiko horren oinarrian formazio ahal-egin handia dagoela. “MSTko-ek esan ziguten lurra okupatzen zituzten nekazariak, behin euren egoera legeztatuta, mugimendutik aldentzeko joera zutela. Hemen berdin gertatzen da, behin norberaren enpresako arazoa gaingaituta, langileak erabat aldentzen dira borroka orokorrageotatik. Brasilen formazioarekin eman diote buelta joera horri”, dio Unai Oñederrak.

“Hemen, behin norberaren enpresako arazoa gaingaituta, langileak erabat aldentzen dira borroka orokorrageotatik. Brasilen formazioarekin eman diote buelta joera horri”

Unai Oñederra, ELA

Formazio ideologikoari dagokionez Florentan Fernandes eskola da Brasilgo Via Campesinaren harribitxia, eta nekazaritza ekologiko- rako heziketa teknikoaren alorrean, berriz, Frontera do Sul-eko herri unibertsitatea.

“Pedagogia eredu propioa garatu dute, irakaskuntza tradizionalagoari komunitatean gauzatu beharreko jardunaldia tartekatzen diona... Nekazariak eraldaketa sozialerako subjektu bilakatzea lortu dute. Ikusgarria da”, gaineratu du Saioa Iraolak.

Altzoan hazi mordoa dakarrela bueltatu da, bada, euskal ordezkariak Brasilatik. Ikusi eta ikasitakoa bakoitzak bere

alorrean jorratzeko asmoarekin, baina batez ere elkarlanerako prest, hori izan baita ekarri duten lezio nagusia: laborari askok batera erein beharreko haziak direla elikadura burujabetzarenak. ■



Mahaingurua

GAIAK

Euskal Herrian bakea lortzearen aldeko giza konferentzia"-ren ondorioak.
Foro soziala eta parte hartze soziala

EGUNA

Ekainak 20, 11:00etan

TOKIA

FICOBA (Irun)

Antolatzailea



CARMELO ORTIZ DE ELGEA

«Margolana hondatzea, margotzeko abenturaren barruan dago»

Margolaria da txikitandik. Margolari haurretan, gaztetan, heldutan, eta 70 urtetan. Margotu beti, naturak eskaintzen dizkigun irudiak estudiora eraman eta birsortuz.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Zu lanean beti edo gehienetan. Zer duzu, eskaileran gora igota zu, margolan hori?

Bi zati ziren margolan honetan. Frontoia zen, hasteko. Horra berdea, hormarena, eta grisa, behearena. Baziren hor atzelaria, eta aurrelaria. Eta aurreko horma beltza. Bi pilotari, pilotatokiaren espazioan. Eta hondatu egin dut, nahitara, guztiz nahitara. Badira hiru edo lau urte pilotatoki hori egina nuela. Lana amaituta zegoen. Baina bazen zerbait nire barnean, korapilo bihurri bat. Margolana espaziala zelako gertatu zait. Espazioa, oteizarra, kutxa... Azken finean, pilotatokia horixe da, kutxa bat. Eta bi pilotari nituen, tamaina naturalean eginak. Sekulako traman-kulua. Baina bazen zerbait asebetetzen ez ninduen. Zerbait kontzeptuala. Ni ez naiz espazioak margotzen dituen margolaria. Aitzitik, espazioak betetzen dituen margolaria naiz. Eta margolan horretan bazen kontraesan bat. Gustatzen zitzaidan, hala ere, baina ni ez naiz horma leunak margotzen dituen artista, nik erraiak maite ditut, barrukoak. Kontzeptua zen koska. Eta halaxe esan nion neure buruari: "Barrabilak izan dituk margotzeko, eta barrabilak izango dituk desegiteko!". Sortzekotan, beharrezkoa baita desegitea. Eta horretan ari naiz, sortzen, eta haluzinatuta nago bi zatiok ikustean.

Pilotaririk ez dago...

Ez dago pilotaririk, baina nik ikusten ditut oraindik! Nahaste-borrastea dago hor, eta horrek pilotariak dakarzkut gogora. Jadanik desegina den haien aztarnak nire gogoan irauten du. Dena dela, haltza ageri da orain hor,

eta ahaztu, beraz, frontoia. Haltz zoragarria, bidenabar esanda. Pilotaria zegoen lekuan, nahaste-borrastea, ur-jauzi moduko bat, planotik kanpora jalgi, beheara. Hautsi dut frontoiaren horma! Nire borroka orain, espazio horretan zer egin erabakitzea da. Haltz horren ondoan beste bat egin, ez egin... Baina haltz hori hain da bikaina, ez du lehiakiderik behar. Edertasunaren eredu da! Natura bizia!

Horixe du izena oraindik orain Gasteizen izan duzun erakusketak: *Natura biziak*. Alabaina, ez duzu natura margotzen, hura sortzen baizik.

Birsortu. Naturak bere partea du nire lanean, duda matazarik gabe. Natura da nire margoaren jatorrian. Beti izan da. Txikitan ere zer egiten nuen, bada? Sorora joan, mendira, eta zuzenean, bertatik bertara margotu arbola edo dena delakoa. Bizian egundo ez diot horri uko egin. Natura etengabe ari zait irakasten. Eta hazi ahala, diferente ikusten duzu

NORTASUN AGIRIA

Carmelo Ortiz de Elgea Jauregi (Aretxabaleta, Gasteizko udalerriko herria, 1944). Haurra zela hasi zen margotzen, autodidakta. Laster nabarmendu zen, eta 16 urte zituela egin zuen lehenengo erakusketa Gasteizen, 1961ean. Azkena, berriz, oraindik orain egin du Arabako hiriburuan bertan, beti natura ardatz. Paisaiak ditu abiapuntu, baina haiek bere barnean egosten eta birsortzen ditu, modu harrigarri eta indartsuan. Sasoi bateko arte figuratiboa bazter utzi eta interpretazio abstraktuak gidatzen du bere margoa, aspaldi.





natura, ezberdin ageri zaizu. Eta emozioak sorrarazten dizkizunean, akabua da! Eman dezagun, ekaitza. Ekaitzaren zarata margo-
tzea, adibidez, handia da.

Zarata margotzea? Ba ote?

Bai, bada. Margolan bat bazen Gasteizko era-
kusketa horretan: *Uraren zarata*. Titulu ederra
iruditzen zait, ikusleak margolana ikusi ez
ezik urak egiten duen zarata ere adituko due-
lako, irudimenean bada ere. Uraren zarata,
margolanean! Ikusleak erantsi behar dio zara-
ta. Partaide da ikuslea, parte hartu behar du,
nahitaez. Nahi nuke ikuslea margolanaren
bideetan barna ibiltzea, mentalki, margolane-
ko bideak, arroak, soroak ibiltzea. Ni, haste-
ko, bide horietan ibiltzen naiz margotzen ari
naizen bitartean. Eta perspektiba ikusten dut,
zeruak eta lurak bat egiten duten lekua.
Ostertza. Nik ikusten dudana aurkitu behar
duzu zuk, zeure erara birsortu. Dударik gabe,
ikuslea parte da nire lanean. Ikuslea margola-
nean ibil dadin nahiko nuke. Nire margolana
entenditzera iritsiko litzateke.

Nork bere modura entendituta ere!

Jakina, margolana ez baita gauza finkoa,
mugiezina. Ez da ideia itxia, guztiz irekia bai-

Hegan

**"Margolan
zaharrari begira:
'Koadro hori
gustatzen zaidak,
baina zerbaitek
enbarazu egiten
zidak'. Eta bertan
uzten duzu, eta
handik puska
batera berriz ateratzen
eta: 'Ai ama!
Bazakiat!'. Eta
hasten naiz formak
askatzen,
arintzen... Forma
eskulturagileen
eginkizuna da.
Margolariok hegan
egin behar dugu.
Nire lanetan forma
astunak ikustean
arintzea dagokit,
formak liberatzea,
margoak arnasa
har dezan".**

zik. Zenbait jendek, margolan bat ikusi eta:
"Beldurra ematen dit". Tira, emozio bat da,
oso gauza ederra. Margolan batek izua eragi-
tea! Askok esan izan didate: "Margolan horrek
beldurra ematen dit". Baina margolana ez da
egiazko lehoia, ez zaitu joko, baina, hala ere,
emozio horixe, izua. Paregabea! Zera esaten
dizutenean bezala: "Ez dut margolaritzaz
entenditzen". "Ongi da. Aukera ezazu margo-
lan hauetako bat". Eta aukeratzen du. Enten-
ditu du! Eta, arao eta birao, ederrena aukeratu
du! Kar, kar, kar. Entenditu du, aukeratu du,
"hau bai, hau ez" esan du. Balio du. Ez dago
unibertsitatera joan beharrik entenditzeko.
Margoak eskaintzen dizuna aintzat hartzea da
kontua, arteak ematen dizuna.

Artea...

Artea, margotzea... Galdetu izan didate:
"Nora hoa?", "margotzera", "zer margotze-
ra?", "ez zakiat", edo "ez zakinat". Alegia,
egiten dudana egitera noa ni, margotzera,
zerbait aurkitzera. Arao eta birao, 70 urte
ditut, eta gaur goizean ohean nengoela ere
pilotatokiko margoetan ari nintzen pentsa-
tzen. "Jaiki eta banoak!". Betiko gogo berare-
kin. 25 urte nituenean bezala, orduan pop-a
margotzen banuen ere. Ez dut adinik! Bizita-

sun bera dut margotzeari dagokionean. Lasai gosalduta eta esan niezaiokeen neure buruari: "Margoak ikustera noak". Baina ez, "bi margolan hauei heldu behar zieat" esaten dut. Garai bateko indar eta kemen berarekin. 20 urteko adin bera dut, oldar bera. Zoragarria, margotzeko gogo horri eustea! Zerbait deskubritzeko gogoa izatea. Ohean nengoen gaur goizean, oraintxe bi ordu, eta buruz, margotzen ari nintzen! Estudiora heldu, eta buruan margotzen ari nintzenak ez du balio. Bestelako bide bat ari zait agintzen margoa.

Margolanak agintzen dizu bidea.

Bai. Berdearen ideia nekarren, zerua egin, ez egin... Baina errazegi iruditzen zait, eta nik ez dut errepikatu nahi. Zerua egin dut lehendik ere. "Ez, ez diat zerurik margotuko, besterik egin behar diat, gehiago sakondu behar diat margoan, harrituko nauen zerbait behar diat, eta zeruak hor ez naiz harrituko". Horrelaxe jarduten dut, eta 70 urte eta gero, oraindik neure burua harritzeko gauza naiz. Horixe dut helburu: sorpresa. "Jainkoaren izenean, zer duk hau!". Dakidana ez zait interesatzen, ez dakidanaren bila ibili nahi dut. Sorpresaren bila. Eta gero, zoria azaltzen da. Eta harekin jokatzeko. Asko gustatzen zait zoria... Lehengo batean bisitari bati esan

Tamaina

"Inpresionistek bezala egiten dut, lekuan bertan margotzen dut. Gero, estudiora etorri eta, batzuetan, margolan txikietan dagoen elementuren bati interesgarri iritzi eta tamaina handiko bat egiten dut, margolan berria betiere, txikiaren errepika izango ez dena. Abiapuntua erabili, bai. Errepikatu, ez. Bila ibili eta birsortu, beti".

nion: "Margolan hori bera bakarrik margotu da". Zoria agertzen da, baina nik eskua sartzen diot. Manipulazioa. Erraiak ateratzen dizkiot zori horri, batean erantsi, bestean kendu... Apropos egiten dut, nahitara.

Bila ibiltze hori ikerketa da.

Bai, jakina. Beti ari gara forma eta elementu berri bila, nahiz eta oso tradizionala naizen materialetan: olio eta lihozko mihisea. Haatik, zenbait artistak material diferenteak saiatzea du xede, laka sintetikoak, bernizak, pistola eta gainerakoak; merkatura etengabe irteten diren materialak. Niri, berriz, betiko pintzel eta mihisea gustatzen zaizkit. Mihisea eskuaz mimatzea gustatzen zait. Elementu guztiak margotu nahi izaten ditut, ez dut ezer aske uzten. Margolan asko behin baino gehiagotan margotu ditut. Orain dela bost, sei, hamar urte egindako lanak berriz ikusi eta "ño, hau beste bukaera baten zain zagok!".

Nahiz eta orduko hartan amaitutzat eman zenuen margolan hori.

Bai, baina berriz ikusi eta zer edo zerk ez zaitu asebetetzen... Bestalde, ez naiz neure buruaz fio, eta badakit margo zaharrari berrekiten badiot balitekeela bestelako margolan bat izatea emaitza, aurrekoarekin zerikusirik batere

Kalean da ekaineko




aizu!

- Panamako Karibearen, itsasoa gorantz
- Uda barnetegiak, euskahalduntzeko
- Ane Zabala arin-arin
- Antonioaren borda Zelatun
- Tradizioa eta etorkizuna likore berean
- Turista artean

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org



OFF THE RECORD

1966, Orain

1966ko abuztuaren lehenean Arabako Orain taldearen erakusketa izan zen Donostian, Barandiaran Aretoan. Han ziren Joaquín Fraile, Juan Mieg eta Carmelo Ortiz de Elgea margolarien lanak eta Alberto Schommerren argazkiak. Urte berekoa da Orain taldearen agiria, non artearen helburuak adierazten dituzten: "Adierazpide, ekintza eta ardura izan nahi dugu gure herriaren behar artistikoengatik, geure hondotik, geure tradizio artistiko herrikoitik, geure baitatik bertatik, integratzen zaigun denetik, integratzen eta osatzen dugun denetik, osatzen gaituen hartatik guztitik".

ez duena. Alegia, balitekeela margolana hondatzea. Baina ez zait axola, margolana hondatzea margotzeko abenturaren barruan dago. Ez dago aurreikusita, baina hori ere jokoaren parte da. Lehendik egindako margoaren aurrean paratu eta hasiko naiz: "Kolare hori ez zaidak gustatzen, oso lodia duk". Eta hasten naiz kolorea arintzen eta, azkenean, beste margolan bat da emaitza. Eta zergatik ez?

Zergatik ez gorde lehendik egina, eta haren gaineko bertsioa egin ondoren?

Hortik jotzen du zenbait artistak, lan beraren bertsioak egitera, hiru-lau bertsioko serie bat, azalean elkarren antzekoak ez diren margoak beharbada, baina, mami bat bera dutenak. Nik ez dut horrelakorik egiteko ohiturarik.

Zure lanek zeu harritzeko ahalmena dute oraindik?

Bai, bai. Bada zerbait oso aitzinakoa: ni margotzera noa. Ez dut aurretiazko planteamendurik, margotuko dudala besterik. Nola, zer... Ez dakit, baina margotu. Ehiztariaren

Fidias

"Unibertsitate ikasketak abiapuntu dira, margoa ezagutzeko, hobeto entenditzeko. Artearen historia, adibidez, oinarritzkoa da. Arte Ederretan bertan ez dakit greziarrak ikasten dituzten, Fidias eta gainerakoak. Orain Guggenheimeko txakurra ikasten dute. Orain moda alu hori ikasten da, arrakasta duena!"

moduan, badabil, eta badoa, eta halako batean: "Hara!, eperra!". Bada, bai, eperra! Berdin ibili ohi naiz ni, hara eta hona, batera jo, bestera... Bidea egin, margotu. Baconek, esaterako, elementu giltzarri bat du bere margoan: pertsonaia tormentatu bat. Hura da protagonista. Nik aldiz, ez dut protagonista bat bakarra nahi margoan, hau, hori eta hura nahi ditut protagonista! Horregatik naiz margolari barrokoa, elementu asko jartzen ditudalako jokoan.

Elementu asko jartzen dituzu jokoan, denak maila berean nahi dituzu protagonista...

Dentsitatea nahi dut. Idazleak orrialde bakoitzean, eta hitz bakoitzean nahi duen moduan, nik margoaren elementu guztietan nahi dut protagonismoa. Osotasuna. Elementu guztiek behar dute beren intentzioa, interesa, karga. Duda matazarik gabe: behetik gora eta eskuinetik ezkerrera, eta zuritik beltzeraino! Etorri, etorri, erakutsiko dizkizut lehendik eginak ditudan lanak... ■



Remigio Mendiburu
Formaren eraikuntza

Oteiza Museoa
2012ko ekainaren 14tik urriaren 7ra

Jorge Oteiza FUNDACIÓN MUSEO FUNDAZIO MUSEOA
Nafarroako Gobernua
SISTEMA DE MUSEOS DE NAVARRA
Laguntzailea: kutxa gizarte ekintza

C/ de la Cuesta 7 - 31486 Alzuza - Tel: 948 332074 - Fax: 948 332066 - info@museootteiza.org - www.museootteiza.org



Zumargain
nekazaletxea

☎ 671 334 101 · Elizmendi auzoa · 20159 Asteasu

SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK

KONTZERTUA



DONIBANE LOHITZUNE

EKAINAK 18

21:00 etan
JAI ALAI



ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
PETTI
ESTITXU PINATXO
MIXEL DUCAU
OLATZ PRAT
AMAIA AZKUE

HEZKUNTZA

Montessori eredua eskola publikoan integratzeko lanean

XX. mende hasieran Maria Montessori hezitzaile italiarrak sortu zuen eredu pedagogikoari buruzko masterra bukatzeaz da Estitxu Elgorriaga lesakarra. Haur Hezkuntzako irakasle hau Mexikon izan da hilabetez, han gertutik ezagutu ditu aspalditik Montessori ereduari oinarritzen diren hiru ikastetxe, eta ikasitakoa bere gelan ari da lantzen, iazko maiatzetik.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



Lehen, materialez eta jostailuz beteta zegoen Estitxu Elgorriagaren ikasgela, eta askok lurrean botata bukatzen zuten. Orain, material gutxiago dituzte, baina denek dute helburu bat.

GOXOTASUNA antzeman du Elgorriagak Mexikoko Montessori eskoletan, etxe kutsua, eta dena dago haurren beharretara, ahalmenera eta neurrira moldatuta. Izan ere, giro egokitua da eredu honen oinarrietako bat: behar bezala egokitutako ikas-inguruari esker, haurraren autonomia bilatzen da, irakaslearekiko menpekotasuna ezabatzea eta nolabait umea bere heziketa eta garapenaren jabe egitea. “Irakaslearen zeregina da behatzea eta behaketa horren bidez gela atontzea: zerbaitek ez badu ikasgelan funtzionatzen, abiapuntua ez izatea haurraren errua dela pentsatzea, baizik eta ohartzea gela ez dagoela ondo antolatua edo materiala ez dela egokia. Adibidez, haurrak

jostailua lurrera botatzen badu, ez dakielako egiten eta frustratzen delako, beharbada material hori ez da aproposa ikasgela eta adin horretarako. Ongi egokitutako giroa lortuz gero, irakasleak ez du apenas esku hartuko, eta halaxe egiaztatu dut Mexikon”.

Jarrera kontzientea uneoro

Irakasleek haurrenganako duten jarrera, hori izan da lesakarrarentzat deigarriena. “Irakaslearen formakuntzan asko lantzen dute umearenganako hurbilketa pedagogikoa. Hemen ikasleekin izan ohi duguna baino kontaktu gutxiago dute, ez dituzte hainbeste besarkatzen edo besoetan hartzen, baina maitasun



handia arnasten da gelan; eskua emanaz, begiradaren bidez... errespetu handiz tratatzen dituzte haurrak, eta beti oso jarrera kontziente du irakasleak, esku-emate eta begirada kontzienteak dira. Hemen presaka bizi gara eta jarrera hori transmititzen diegu haurrei, baina han irakasleak ez dio 'ixildu!' oihukatuko ikasleari, gerturatu egingo da, haren mailan jarri eta tonu apalean mintzatuko zaio. Haurrek eredutzat gaituzte, tonua jaitsi eta berdin arituko dira. Goxotasunez hitz egiten die eta umeek hala barneratzen dute, euren artean errespetuz aritzen dira, elkarri lagunduz, giro lasaian...". Eta umea urduri baldin badago, "gelditu" esan beharrean bestelako estrategiak erabiltzen dituzte, urduritasun hori jardueraren baten bidez kanalizatu dezan, adibidez gelatik atera eta lorategira landareak ureztatzea lagunduko al dion galdetuko dio irakasleak.

Konkretutik abstraktura

Bisitaturiko eskoletan, adin ezberdineko umeak daude gela berean nahastuta (0-3 urte, 3-6...), 25 bat ikasle eta bi heldu gelako: bate-tik, Montessori gida (umearen bidelaguna) eta bestetik, laguntzailea (materialen bat falta denean bila joango dena, adibidez). Lau gune nagusitan banatzen dira gelak: "Bizitza praktikoa" gunean, eguneroko tresna errealek dituzte, koilarak, pintzak, giltzak, edalontziak, erratza... eta besteak beste, horiek manipulatzu eta horiekin jolas-tuz esku eta hatzetako motrizitate lantzen dute, inkontzienteki gero idazketarako baliagarri.

"Gune sentesoriala" zentzumenak lantzen dago bideratuta (ukimena, entzumena, dastamena...). "Matematikak" txokoan, denean bezala, konkretutik eta errealetik abstrakturako bideak agintzen du: "Guk lehenengo ikasi izan dugu $2+2=4$ dela, baina alderantzizko eredu-a da Montessorirena, umeak lehenengo ukitu, bizitu egin behar ditu zenbakiak, abakoak... eta gero egingo du abstrakziorako saltoa; Lehen Hezkuntzako ikasturte aurreratuagoetan hartuko die zentzu matematikoa Haur Hezkuntzan jolasean osatutako kubo eta abarrei". Berdin "Hizkuntzak" atalean, konkretutik abstraktura: benetako sagarrak dituzte Montessori ikastetxeetan, alboan sagarraren irudia marraztua, eta hortik izena ikasiko du umeak. Idazketa eta irakurketa ere sentesorialki abiatzen ditu haurrak, hatzekin lixa edo paper-latzetan hizkiak

Goian, Mexikoko Union Montessori ikastetxeko gela bat, 3-6 urteko umeena. Etxe kutsua dute eta dena dago haurren beharretara eta neurrira moldatuta.

irudikatuz (hizki horrek duen hotsa eta ahoske-ra esango dio irakasleak), gero hondarrean errepikatuz, klerarekin arbelean eta arkatzez azkenik. Gune horiek guztiak "Hezkuntza Kosmikoa" deiturikoak biltzen ditu (Lurra, landareak, animaliak, gizakiak... hizpide).

Material gutxi, baina helburu jakinekin

"Hemen jostailu eta material pila bat erabili ohi dugu, eta han gauza gutxi dituzte gelan, baina ezer ez dago soberan, denak du helburu bat". Ume denek aldi berean materialen bat izateko prestatuta dago gela, baina material bakoitzetik bakarra dago, eta errespetatzen ikasteko modua ere bada hori: umeak badaki gaur beste batek duena bihar erabili ahalko duela. Kristala, egurra eta material naturalak erabiltzen dituzte, plastikoa apenas, eta pisu, forma... jakinak dituzte, haurrak sentitu eta bizitu ditzan. Materialek akatserako kontrolak dituzte gainera: alegia, irakasleak ez du kasik esku hartzen eta umea autonomoki aritu daiteke horiekin. "Gelako materialekiko errespetua eta zaintza ere handia da; irakasleak kontu handiz, poliki maneiatzen dituzenez, halaxe egin behar dela barneratzen dute umeek. Zer-bait puskatzen bada, segituan ordezkatzan dute, umeak ikusten badu zuk puskatuta dagoen liburu bat darabilzula, pentsatuko duelako puskatu dezakeela".

"Zerbaitek ez badu ikasgelan funtzionatzen, ez pentsatu haurraren errua dela, baizik eta gela ez dagoela ondo antolatua edo materiala ez dela egokia"

Estitxu Elgorriaga, irakaslea

Irakasleak materiala edo tresna hartu eta umei aurkeztuko die nola egingo lukeen berak, eredu-a izan dezaten. "Esaterako, koilara nola hartu erakutsiko die, baina gero umeak nahi duen moduan egingo du. Hizkuntza edota matematikekin berdin, eredu-a eman, eta gero libre utzi. Eredu-tik eta bizitaketatik ekitea da abia-puntua eta hori barneratua dute-nean, autonomia garatzen dute haurrek, helduonganako menpekotasuna gutxituz. Ni han nengoela, 4 urteko ume bati edalontzia lurrera erori eta puskatu egin zitzaion. Bada, inortxok ere ez zuen burua altxatu (irakasleak ere ez), haurrak bere tamainako erratza hartu eta apurtutakoa jaso zuen".

Ikas-egun bat Mexikoko Montessori eskolan

Goizeko 8etan sartzen dira haurrak, material bat hartu eta beren kabuz, bakarka edo talde-txotan, jardunean hasten dira. Bakoitzak bere alfonbratxoa du, lurrean jarri eta ariketa hor egingez euren gunea markatzeko eta errespetu-



Irudian, Estitxu Elgorriagaren ikasleak. Haur bakoitzak bere alfonbratxo du, lurrean jarri eta ariketak hor eginez euren gunea markatzeko eta errespetatzeko.

tzeko, baita kontzentratzeko ere. Bizpahiru orduz aritzen dira horrela. “3 urteko haurrentzat denbora gehiegi zela iruditzen zitzaidan hasieran, baina gustura egoten dira, askatasuna dute erabakitzekeo hizkuntzak landu nahi ote dituzten, matematikak, erratza pasa nahi al duten...”. Ondoren, hamaiketakoa prestatzen hasten dira, hau ere beren kabuz (2 urtekoak barne), “adibidez tortak eraman eta frijoleak prestatzen dituzte, platerak, labanak... euren neurria egokituta daudelako”. Gero ontziak-eta garbitu eta jolastokira aterako dira, eta ondoren berriz ere ariketaren bati helduko diote, edo musika edo ingelesa landuko dute.

“Gerta daiteke haur batek inoiz ez gogorik agertzea matematikekiko. Ni egon nintzen eskolan irakasleak esan zidan bere egitekoa izango litzatekeela haur horrek dituen interesak bilatzea, esaterako biologia atsegin badu biologiaren bidez matematikak lantzea eramateko. Edo batzuetan lagundu egin behar zaie zuzenean: ‘Gramatikan uste dut oraindik hau pixka bat gehiago landu dezakezula, eta elkarrekin lantzen badugu?’. Baina oinarria da norberaren interesen, motibazioaren eta jakin-minaren eskutik bideratzea haurren garapena, ez ditzan gauzak derrigortuta ikasi, irakurtzera behartu dugulako ez dezala irakurketa gorrotatzen bukatu”.

Han ikasitakoa hemen aplikatuz, aldaketa nabaria

Mexikotik bueltatu eta Montessoriren materialik gabe ikasgelan aldaketa gutxi egin ahalko zuela pentsatu zuen hasieran Estitxu Elgorriagak, “baina esentzia mantenduz, behatuz eta haurrenganako hurbilketa egokia eginez, gauza

asko alda daitezke. Jarrera, tonua, ikuspegia... aldatu ditut, hitz gutxiago erabiltzen eta haurrei apalago hitz egiten saiatzen naiz, bestelako errespetuz”. Behaketaren lehenengo pausoa norberaren burua aztertzea da: “Astelehenez etorri eta agian nekatuta nago, bada horretaz ohartu, ‘nola dauden gaur haurrak!’ ondorioztatu beharrean. Norberak kontzientzia hori hartzea, barneratzea eta bide horretan ekitea aurrerapauso handia da jada. Lehengoan adibidez, konturatu nintzen isiltasunean zeudela, bakoitza berera, eta nik ez nien isilik egoteko agindu, baina nire jarrera ere halakoa denean, hori transmititzen diot gelari. Ezin diozu umeari exijitu lasai egoteko, zu urduria zarenean eta urduritasun hori kontrolatzeko neurriak hartu ez dituzunean”.

Pixkanaka, Montessoriren filosofia forma hartzen ari da Elgorriagaren gelan. Lehen gela materialez eta jostailuz beteta zegoela dio, eta askok lurrean botata bukatzen zutela; orain material gutxiago dituzte, baina helburu zehatzekin. Gainera, kontu handiz erabiltzen ditu, eta haurrek ere hala barneratu dute, gehiago zaintzen dute dena. Gelan kristalezko materialak nolatan sartuko zituen esan zioten, umeek berehala apurtuko zituztela; bada, osorik diraute. “Edota lehen nik

zerbitzatzen nien ura ume guztiei eta nahiko kaotikoa zen; orain pitxerra dute, eta edalontzi bana, eta norbera moldatzen da ura edateko. Lurra bustitzen dela? Badakite non dagoen zapia eta lehortu egiten dute”.

Aztoramendurako beharra ez al dute, ordea, haurrek? “Umeak isiltasuna ere behar du. Uste dugu garrasi batean bizi direla, baina lasai eta gustura ikusten ditut bakarrik edo talde txikitik jardunean”. Azken finean, sarri kontrakora ohitu ditugu, estimuluz inguratuta eta helduon bizi-erritmoaren estresak kutsatuta.

Etorkizunera begira, Montessori eredua hezkuntza publikoan txertatzea da Elgorriagaren helburua, eta egingarria ikusten du. “Haur

Hezkuntzako curriculumak dioena eta Montessoriren filosofia bat datoz: autonomia lortzea, sozializazioa...”. Haur Hezkuntza irekiagoa dela eta askeago aritzeko abagunea ematen duela aitortu digu, baina gogoratu duenez, Batxilergora arte Montessori eredua jarraitzen duen eskola ugari dago munduan. “Euskal Herrian eredu alternatibo eta pribatu gisa zabaldu da, baina inguruen ikusi dut irakasle eta gurasoen artean gogoa eta interesa badagoela; zergatik ez zabaldu hezkuntza publikora?”. ■

“Guk $2+2=4$ dela ikasi dugu, baina alderantzizko eredua da Montessorirena: lehenengo ukitu, bizitu zenbakiak, abakoak... eta gero egingo du umeak abstrakziorako saltoa”

“Tonua, ikuspegia... aldatu ditut, saiatzen naiz hitz gutxiago erabiltzen eta haurrei apalago hitz egiten, bestelako errespetuz. Jarrera hori transmititzen diot gelari”

Nepaldarren Euskal Herriko komunitatearen txanda

Milaka hildako utzi dituen lurrikarak Euskal Herrian bizi diren nepaldarrak aktibatu ditu. Hainbat herritan kalera atera dira herritarren atxikimendu eta babes ekonomiko bila. Eibar, Mendaro eta Elgoibarren lanean ibili direnekin mintzatu gara.

| LANDER ARBELAITZ MITXELENA |



Nepaldarren komunitatea bere herrialdea laguntzeko lanean ari da. Bizilagunen elkartasuna eskertu dute.

BERE JAIOTERRI NEPALEN LURRIKARA izan zela jakin zuen 8:00ak bueltan Binod Barailik. Eibarren bizi da emazte eta semearekin orain urtebetetik. “Nepalen ohikoak izaten dira lur mugimenduak, eta betiko txiki horietako bat izan zela pentsatu nuen”, dio ahots apalez. Richter eskalan 7,8-ko maila zuen ordea, eta apirilaren 25 hartako desastre naturalak 8.600 lagunetik gora hil zituen, 23.000 zauritutik gora utziz. Nepal munduko herrialderik garaiena da, laguntza bideratzeko zailtasun handiak dituen, eta aurretik ere, herritar asko pobrezian bizi den lekua. Herrialdea lur jota utzi zuen.

Euskal Herrian Nepaldik etorritako komunitatea bizi da. Orotara zenbat diren ez bada-kite ere, Eibar, Elgoibar eta Mendaron, adibidez, 70 bat nepaldar bizi dira. Barailik kontatzen duenez, hasiera batean, inork ezin zuen herrialdeko lagun eta senideekin harremanetan jarri, ziurrenik azpiegiturak hondatuta zeudelako. Facebook bidez ikusi zituzten jaioterriko irudiak, jendea ospitaleetan nola zegoen, oinarritzko laguntza eskatzen ari zirela herritarrak gobernua bera ere iristen ez zen guneetatik. Etxean negarrez egon zela dio. Barailik lagun bat galdu zuen.

Lehen uneko beldurak eta saminak nola hala gaindituta, zerbait egin behar zutela pentsatu zuten. Nepal herrialde txiroa da, eta Binod oso kritikoa da gobernuarekin. “Aurretik arazo mordoa bageneuzkan, gobernu txarra barne, orain gehitu egoera horri milaka pertsona hil dituen lurrikara ikaragarri bat”.

“Orain arte ez geunden antolatuta, eta hemendik aurrera lanean jarraituko dugu”, dio boluntario lanak betetzen duela dioenean. Hainbat udalek emandako laguntzaz gain, herriko plazetan bizilagunen laguntza jasotzen ibili dira, ahalik eta azkarren Gurutze Gorriaren kontu korrontean sartuz (Euskadiko Kutxa: ES90 3035 0050 7105 0004 6056). Eibarko Immigraziorako Udal teknikariaren laguntza bereziki nabarmendu du Binodek.

Eibar, Mendaro eta Elgoibarko komertzioz komertzio eta etxez etxe ibili da aipatu komunitatea. Ipuruako partiduan ere diru bilketa egin zuten eta aurrerantzean ere laguntzen jarraituko dutela argi dute.

Herritarren elkartasuna nabarmendu du, eta bizilagunei esker moduan, artikulua ilustratzeko hautaturiko otoitza egin zuten, beren herrialdearen izena kandlekin idatziz. ■



**June
Fernández**

KAZETARIA

Zer egin gure pribilegioekin?

FEMINISTA IZATEA ez da batere erosoia. Betaurreko moreen metafora erabili ohi dugu: normaltzat jotzen diren bidegabe-keria ugari begi-bistan ditugu betirako. Alabaina, azken boladan feminista izatea are eta deserosoagoa bilakatu da.

Europar oso berritzaileak sentitzen gara, orain dela gutxi hasi gara Ameriketako mugimendu sozialetan 80ko hamarkadan garatu zen funtsezko kontzeptu bat barneratzen: interseksionalitatea. Ikuspuntu horren arabera, ezin dugu dominazio sistema bat (sexismoa, esaterako) era isolatuan aztertu.

Orain arte “diskriminazio bikoitzaz” ari ginen, emakume ijitoen, baserritarren edo etorkinen errealtateaz aritzera. Ikuspegi horrek logika aritmetiko sinplea zekarren. Pentsa genezakeen itsua den lesbiana batek eta transexuala den gizonazko etorkin beltz batek antzeko diskriminazioa bizi dutela: hiru faktore. Baina izan liteke kontuan hartu ez dugun osagai batek pisu gehiago izatea; esaterako, klase sozialak.

Interseksionalitatea ez da soilik diskriminazioez ari, baizik eta zapalduen erresistentziarako baliabideez eta zapaltzaileen pribilegioez. Feminismo klasikoaren arabera gizarte patriarkala unibertsala da: emakumeak zapalduak gara eta gizonak zapaltzaileak, baina argi dago errealtatea konplexuagoa dela

Interseksionalitatea, gainera, ez da soilik diskriminazioez ari, baizik eta zapalduen erresistentziarako baliabideez eta zapaltzaileen pribilegioez. Feminismo klasikoaren arabera gizarte patriarkala unibertsala da: emakumeak zapalduak gara eta gizonak zapaltzaileak, baina argi dago errealtatea konplexuagoa dela. Bi adibide erraz. 1. Angela Merkelek sexismoa bizi dezake, baina boteretsua izateagatik rol zapaltzaile bat ere badauka eta gizonezko langile gehienak bera baino zapalduagoak daude. 2. Gosea bizi duen

Niger-eko emakumearen alboan edota transexuala izateagatik langabezian dagoen emakumearen alboan, pribilegiatua naiz ni.

Gizonei askotan esan diegu: berdintasunaren alde egiteko lehenengo pausoa, pribilegioei uko egitea da. Beti amorratu nau gizonak bero direnean esparru publikoetan kamiseta erantzeko ohitura. Emakumeok bularrak ezkutatu behar ditugu; publizitate sexistak apaintzeko eta hurrak edoskitzeko bakarrik erakutsi ahal ditugu. Beraz, emakumeoi eskubide hori ukatzen diguten neurrian, pribilegioa da gizonak titiburuak parke edo gaztetxe batean erakusteko erabakia. Stop Gorfobia (lodifobia) kolektiboak dio edertasuna zapalkuntza sistema bat dela eta kode estetikoak betetzeak pribilegio estatusean kokatzen gaituela. Orduan, minigona daramadanean, argal egotearen pribilegioaz gozatzen dut? Ez al da gizonak kamiseta kentzearen antzekoa?

Atzerri bidaiatzen dudanean, zuria eta europarra izateagatik, muga-postuetan eta aireportuetan ez naiz urduri jartzen. Inork ez du pentsatuko “etorkin ilegala” naizenik. Nola uko egin abantaila horri?

Pikara Magazinen maiz saiatzen gara halako gai deserosoak jorratzen. Esaterako, kontraesana al da feminista etxeko langilea izatea? Ez al du sistema klasista, sexista eta xenofobia elikatzen? Ez al du botere harreman gaiztoa garatzen? Bikote heterosexuala kalean musukatzea ez al da pribilegio? Zergatik borrokatzen dugu lesbianok abortuaren alde eta heterosexualek ez dute neurri berean lesbofobiarren kontra borrokatzen? Horrelako artikuluen komentario gehienetan jarrera defentsiboa eta batere ez autokritikoa sumatzen da.

Deserosoa da bizi ditugun zapalkuntzak antzematea; are eta deserosoagoa zuriak, heterosexualek edo argalak izateagatik ditugun pribilegioak onartzea. Erronka galanta da botere eta diskriminazio sistema guztien amaraun konplexua kontuan izatea, baina berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko borroka koherente eta zintzoa egiteko beharrezkoa. ■



Mikel Irizar

EUSKALTZALEA ♦



DANI BLANCO

Boto mugikorra

ASPALDITXOTIK nabil aldarrikatzen boto mugikorra. Alegia, oso sana dela botoa alderdiz aldatzea, aldiro sarituz edo zigortuz haien jarduna. Sinetsita nago zenbat eta siglen morrontzatik askeago izan hautesleak, orduan dela gizartea bere etorkizunaren jabeago.

Eta azken hauteskundeotan botoa dezente mugitu da. Nafarroan lehen aldiz posible da orain arte gobernatu duten alderdi guztiak oposizioa bidaltzea. Nik iraulketa horretan ikusten dut gizarte batek egin lezakeen soberania ariketarik gorenena. Gipuzkoan lehengora itzuli dira urak, neurri batean. EH Bilduk uste izan zuen 2011ko garaipenak ez zuela atzera bueltarik, baina gipuzkoar gizarteak erakutsi du ez duela txeke zuririk sinatzen, aldiro irabazi behar dela bere borondatea.

Araban mugimendu interesgarriak gertatu dira: Marotori *lepenismoak* aldeko boto batzuk eman dizkio, baina aurkakotasuna izugarri areagotzearen truke; aldi berean, Podemosek unionismo tradizionala higitu du eta abertzaleek ondo eutsi diote. Euskal nazioaren ikuspegitik, Araba ez da dagoeneko “zazpigarren alaba”. Azkenik, Bizkaia da botoa gutxien mugitzen den herrialdea. Egia da ezkerraldea jeltzaletu egin dela urteen poderioz, han ere amore eman balute

bezala alderdi nagusiaren aurrean. Baina nagusitasun hori berretsi egiten da, urteak joan, urteak etorri.

Hala ere, nahiz EAJren indar positioa hedatu den lau herrialdeetara, nago Bizkaitik kanpo molde berrietan jardun beharko duela aurrerantzean. Izan ere, betiko alderdi unionisten botoak beherantz egin

du nabarmen, eta jeltzaleek hor aurkitu dituzten ohiko aliatuak gero eta ahulagoak dira. EAEn sozialistekin egingo dute itun nagusia, itxura guztien arabera; baina ez zaie beti aski izango eta, botoen mugikortasunari erreparatuz, ez dirudi etorkizun luzeko formula denik.

Nafarroan daude niretzat gako guztiak: jarraitu behar da aldaketaren oinarri soziala handitzen; nafarren erabakitzeke eskubidea

tresna indartsua izango da borondateak batzeko; gobernu mota ezberdinak dira posible aldaketaren baitan; adosten diren edukiak interesgarriak izango dira EAerako ere... Esango nuke Nafarroan egos daitekeela euskal hiritartasun berri bat, irekia, partekatua, euskaltzale eta solidarioa... Eta bistan da mugitu diren botoek ekarri dutela aukera hori.

Ergo... boto mugikorra ugalduz erdietsiko ditugu hain beharrezko zaizkigun gizartearen emantzipazioa eta alderdiekiko oreka berria. ■

Nafarroan egos daiteke euskal hiritartasun berri bat, irekia, partekatua, euskaltzale eta solidarioa. Bistan da, mugitu diren botoek ekarri dute aukera hori

JOSU SANTESTEBAN



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Kopia arriskutsurik ez

ORAINTSU irakurri duzu Nerea Llanosek laudatu dituela Josu Bergara (EAJ) eta Javier Maroto (PP), Sestaon eta Gasteizen lortutako hauteskunde-emaizta onak direla-eta. PPK EAEn duen idazkari nagusi berriak adierazi du haiengandik ikasi behar dutela. Hartara, hemendik aurrerako erreferentziak izango dira Bergara eta Maroto.

Izu-ikara eragin dizu “erreferentzia” hitza ikusteak. Izan ere, logika elektorala ez da beti logika soziala. Bi logika ezberdin dira. Propaganda jakin batek eman dezakeen uneko arrakasta ez da berez arrakasta politikoa. Alde horretatik, bistan da dis-

kurtso xenofobia erabiliz lortu dutela Sestaoko eta Gasteizko hainbat (eta hainbat) herritarrekin bat egitea. Hori ezin uka. Nolanahi ere, formula ez da berria, ezta originala ere. Gurean baino tradizio demokratiko handiagoa duten Europako zenbait herrialdetan ikusi berri dugu diskurtso xenofoboek ongi funtziona dezaketela elektoralki.

Estatuko hauteskundeak prestatzeko bidean dira jada alderdiak. Eskaera garbia etorri zaizu gogora: mesedez, ez saiatu baliatzen kopia arriskutsurik botoak ehizatzeke. ■



Iñaki Martínez de Luna

♦ SOZIOLINGUISTA

Maila bat gorago

EUSKARAREN ALDEKO dinamika maila bat gorago eraman behar dugu hurrengo urteotan. Ari garen maila honetan luze jarraitzea, atzera egitea litzateke. Zertan egin gora, baina?

Euskarak hobekuntza nabarmena izan du zenbait eremutan, baina ez gizartearen luze-zabalean. Piramide baten modura meta genitzake euskararen eremuak, arrakastatsuenak oinarrian eta garapen eskaseneak goian jarrita. Beheko mailan aipa genitzake, adibidez, ezagutzaren hedapena, euskarazko literaturaren loratzea, hezkuntzaren euskalduntzea, euskalgintza herritarraren zein instituzionalaren prestakuntza eta gutxi batzuk gehiago. Piramidearen maila horretatik gorantz leudeke arlo edo dimentsio gero eta ahulagoak euskararentzat, hala nola eguneroko erabilera, hedabideak zein IKT delakoak, kultura kontsumoa, lan mundua eta beste hainbat. Egun dagoen punturik kritikoa eta, hortaz, alegiazko piramide horren erpina, lidergoaren eta estrategiaren antolamenduarena da.

Gizarte mugimendua eta herri administrazioetako euskara atalak izan dira hizkuntzaren estatusa hobetzeko ildoak markatu eta indarrean jarri dituztenak. Baina, nork bere kasa jardun du, ez lankidetzan. Landutako eremu geografikoak zein estrategiak ezberdinak izaten dira, eragileen arabera eta alderdi politikoak eta horiek ordezkatzan dituzten ideologiak tarteko. Batzuetan euskara ahoan, baina norberaren interesa buruan. Ulergarria, baina ez egokia.

Edozein kasutan, euskararekin lotura edo zeregin zuzena dutenek baino ez dute parte garrantzitsurik hartu. Gizarte eragile gehienak euskarari buruz taxuz arduratu ez izana gabezia handia izan da. Horretan keinu bat egin dutenek ere, jardun puntaletarako baino ez da izan. Ematen du euskara ez dela gizarte osoaren interesekoa, hizkuntza denona eta denontzat ez balitz bezala. Kontua da gizarteak ez badu euskara bere egiten, euskara ez dela gizarteaz jabetuko.

Gizarte mugimendua eta herri administrazioetako euskara atalak izan dira hizkuntzaren estatusa hobetzeko ildoak markatu eta indarrean jarri dituztenak. Baina, nork bere kasa jardun du, ez lankidetzan

Egungo lidergok eta estrategia partzial zatikatuak gainditu, eta gizarte eragile gehienek inplikazioa eskuratu behar da. Horretarako, beharrezkoa da dinamika berri bat abiatzea, nor diren guztiak barne hartuz eta koordinatuz gizartean: ekonomikoak, kulturalak, herrigintzakoak, politikoak, instituzionalak, akademikoak... Igo beharreko maila, beraz, lidergoaren eta estrategiaren ingurukoa da. Horrek ahalbidetuko du euskarak ere gorantz egin dezan. ■

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Marotori jarriak



Ander Solozabal Kortabarria

♦

Doinua: Anje Duhalderen "Gure zortea"

Xenofobiaz zabaldu diren irain, mezu ta gorroto guztiaz Gasteiz zikindu duzu, trukean milaka boto. Fonetikoki antzeko dira lau hitz hauek, bi hitz joko: arabarrak ta arabiarrek, Maroko eta Maroto.

Udal kanpaina eta txanpaina bukatu, zer egin den? Populismoak, ustelkeriak, sortu arazo askoren errua txiro eta atzerritar batzuen omen hemen zuk eta zure lagun doilorrek ohosten jarrai dezazuen.

Hizkuntz, bizipen, ohitura, soinu eta jakintza ugari, ezagutu dut bazter hauetan ta adierazi nahi dut argi: Bizilaguna txikituz soilik senti daitekeena handi sekula ere ez da izango hiriaren ordezkari. ■



Ekainak 20

Lekua: Donostiako Boulevard-a
Ordua: 12:00-etatik 14:00-etara



Tailer ugari



FUTBOL TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK

Ceneted

IBILKETA NORDIKOA

Ekin kirolak



TRAVEL ENGLISH

Easolingua

MINTZA SAIOAK

Urumea euskaltegia



GOOGLE CARDBOARD: LOW COST VIRTUAL REALITY SHOW

AEG Ikastetxea

I-TREASURE: IKT GAITASUNEN GARAPENA

Tecnalia



LARRU IKASTAROA ETA HAURRENTZAKO SORMEN TAILERRA

Conunpuntomás

MÂCHÉ PAPERA ETA JOSKERA

XX1arte



MUSIKA FAMILIARTEAN

Musikhazi

Animatu zaitez eta ikaskuntzaz gozatu!
Adin guztietarako ekintza ugari

 /heziplus
 @heziplus
info@heziplus.eus



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapenerako
eta Turismoaren Departamentua

EUROPAR BATASUNA
1992ko EKIALDE GARAPENERAKO
EUROPAKO FUNTSA



Europa egiteko bide bat

ikasmina:

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende

Guggenheim efektupean ere, diziplina ikusezinak

Joseba Sarrionandiak idatzi zuen ezkurak ematen dituen zuhaitz bat dela euskal artea. Azkenaldian hainbaten ahotan azaldu da kezka zuzenago formulatuta: lotura oso lausoa dago euskal kulturgintza orokorrarekin eta arte plastiko eta bisualen artean. Iragan dira eskultura abstraktu batzuk geure identitatearen ikur ezin nahasizkoak ziren sasoia. Jaio dira artista-belaunaldi berriak Oteiza eta Basterretxearen ostean; inor gutxik ezagutzen ditu haien izenak, ordea. Haizea Barcenilla arte historialariarekin, Kalostrako zuzendari Xabier Gantzarainekin eta Okela Sormen Lantegiko kideekin hitz egin dugu gaiari buruz.

| DANELE SARRIUGARTE MOCHALES |





BAT DATOZ, gutxi-asko, diagnostikoan. Amildegia dago euskal artearen eta kulturgintza-ren artean. Barcenilla: “Sarri izan dut inpresioa, baina oso nabarmen sentitu nuen *Jakineko* talde editorialean sartu nintzenean. Hor zeuden literaturan interesa zuten kazetariak, politikan interesa zuten musikariak... Ordea, denek sentitzen zuten artea gauza urrun bezala”. Okela Sormen Lantegiko Irati Urrestarazu: “Gaur egun zeharo banatuta daude bi esparruak. Ez dago puntu sinbiotikorik”. Gantzarain: “Gaur egun 40-50 urteren bueltan dabiltzan Euskal Herriko artista ia denak ezagunagoak dira kanpoan hemen bertan baino: Azucena Vieites, Asier Mendizabal... Jende askok Itziar Okariz ezagutuko zuen Durangoko Azokako kartela egin zuelako, horra bere ekarpena”.

Arazoa bi aldeetan: protekzionismoa eta etiketei alergia

Deskonexioaren arrazoiak haztatzen hasi eta berehala agertu da hizkuntza-ren salbazioa. Gantzarainek aipatu du: “Gure patu tristea da gure hizkuntza galtzen ari dela eta egunen batean galdu egingo dela, eta denbora guztian ari gara galera horren kontra borrokan”. Horren ondorioa, Urrestarazuren arabera: “Euskal kulturen eta Euskal Herrian guztia defentsaposiziotik abiatuta egiten da. Hortaz, edo egiten duzu arte bat Oteizarena-eta bezalakoa, Euskal Herriaren eta hizkuntzaren defentsarekin esplizituki lotzen dena, edo jai daukazu”. Homologazio-goseaz ere jardun Gantzarainek: “Gure artista eta idazleak interesatzen zaizkigu besteen parekoak garelako esateko balio duten heinean. Gutxitasun-komplexuak daude horren oinarrian. Ez ditugu gure artistak ikusten testuinguru zabalago baten barruan, eta azken batean, zertarako nahi ditugu? Ez irakurtzeko ezta beren lana ikusteko

Guggenheimek “min handia” egin duela uste du Haizea Barcenillak. “Lehen artea ez zen hartzen ezinbestean erraza izan behar duen gauza baten moduan”.

“Mega-instituzioak egin ditugu eta askoz inteligenteagoa izango litzateke instituzio txiki eta tokian tokikoak egitea”

Haizea Barcenilla

ere, sariak jasotzeko baizik, eta Euskal Herriaren ordezkariak izan daitezen nazioartean”.

Artisten aldetik, etiketei uko egiteko joera dago. Okelako Nora Aurrekoetxea: “Arte plastikoak oso lotuta egon dira unean uneko testuinguru sozial eta politikoarekin, 60ko hamarkada da adibide esanguratsua. Gaur egun, ordea, eta modernitatearen ezaugarri bat ere bada, justu kontrakoa bizi dugu: inork ez du nahi itxi-usaina izan dezakeen etiketarik”. Ados agertu da Barcenilla, eta bestelako arrazoiak ere aipatu ditu: “Arte oso instituzionalizatuta egon izan da eta, oro har, artistek diru-laguntzei esker lortu dute proiektuak gauzatzea. Nik uste dut artista batzuk beldur direla, zerbaiten alde posizionatuz gero, beste batzuk boterean sartzean kontrako eraginik izango ote duen. Tristea da, baina interferentzia politikoak oso argiak izan dira artearekin lotutako instituzioetan”.

Okelako Izaro Gonzalezek artisten formakuntza ere ipini du fokua: “Unibertsitatean bertan Arte Ederak ikastera zoaz eta ia karrera osoa egin dezakezu euskaraz, baldintza kaxkarretan, baina tira. Hala ere, hori ez dago testuinguruan kokatuta. Arte karrera bat egiten dugu hizkuntza minorizatu batean, daukagu historiarekin eta kultura subalterno bat izanda, baina hori ez da lantzen.

Badirudi gaudela ez-dakit-nongo unibertsitate batean, baina eskolak euskaraz egiten”.

Arte garaikidea ez da ulertzen...

Zenbat aldiz esan ote dugu gisako esaldiren bat artelan baten aurrean paratuta? Barcenillaren ustez gehiegixko tematzen gara ulertu behar horrekin: “Hezkuntzatik hasita, lotuta daukagu ikastea arrazionalki ikastearekin, gorputza edo sentipenak oinarri hartzea gutxien da. Dena modu arrazional batean

ulertzen saiatzen gara eta onartu beharko genuke artelanez ez daukatela erantzun bat eta bakarra. Artelan baten aurrean gaudenean geure buruari galdetu beharko genioke ea zergatik hunkitzen gaituen edo zergatik ez diogun interesik aurkitzen”. Gainera, sarritan espektatiba handiegiak ere izaten ditugu: “Zinearen kasuan, adibidez, onartuta daukagu film guztiak ez zaizkigula gustatuko. Artean, ordea, esperientzia eraldatzaile bat bilatzen dugu beti”.

Ustezko ulertezintasunaren harira, Gantzarainen adibide bat jarri du: “Itziar Okarizen *Mear en espacios públicos y privados* performanceak hainbat topiko desmuntatzen ditu, tartean artea abstraktua eta elitista dela beti. Baina beste kontu bat da: lan hori non ikus dezakezu? Ez da *Obabakoak*, ezin zara liburutegira joan eta irakurri”. Gantzarainen ustez, artearen munduak ere elikatu du elitismoarekin ikuspegia: “Neuk ere esan dut ahalegina eskatzen duela, eta egia da, baina hein batean deseraiki egin behar da: erakusketa batera joan eta ezin duzu sentitu ergela zarela eta horregatik ez duzula gozatzen. Diskurtso arriskutsu pila bat irentsi ditugu”.

...aurrez mamurtua ez bada

Distantzia eta deserrotzearen ifrentzua Bilboko “kankarroan” topa dezakegu. Badago derrigorrean ezagutu beharreko artearen historia bat. Barcenilla: “Guggenheimekin paradigma aldatu da. Min handia egin dio arteari, nahiz eta badirudien oso onuragarria izan dela, batez ere ekonomikoki. Lehen artea ez zen hartzen ezinbestean erraza izan behar zuen gauza baten moduan”. Idurre Eskisabelek zaborrez eta herritar ereduez idatzitakoa arteari ere aplikakioke, alegia: “Instituzioek kontsumitzaile-eredua bultzatzen dute: inolako esfortzurik egin gabe, bezeroak gozamina jasotzen du, arazorik edo zalantzarik sortzen ez diona”. Gantzarain: “Audio-gidarena klabea da. Guggenheim ireki zutenean ordaindu egin behar zen, orain ordea sarrerarekin ematen dizute eta esaten dizute zer ordenatan ikusi behar dituzun obrak eta bakoitzean zer aurkitu behar duzun. Dena eginda ematen dizute, baita artearen historia jakin bat ere”. Historia matxista eta inperialista, Barcenillaren esanetan.

Piccasoren lan ezagunenaren kasua argigarria da, Gantzarainen iritziz: “Diskurtso batek finkatu du *Guernicaren* garrantzia. *Guernica* ez da bonbardaketa baten errepresentazioa, ez dago hegazkinik, ezta bonbarik ere.

Hala ere, bertara zoazenean horixe ikusiko duzu, horixe ikusi behar duzula esan dizutela. Beste galdera bat litzateke zeinek idatzi duen diskurtso hori (MoMA, Espainiako trantsizioa...)”.

“Euskal kulturaren guztia defentsa posiziotik abiatuta egiten da. Edo egiten duzu arte bat Oteizarena-eta bezalakoa, Euskal Herriaren defentsarekin lotzen dena, edo jai daukazu”

Xabier Gantzarain

“Arte Ederren karrera ez dago testuinguruan kokatuta. Badirudi gaudela ez-dakit-nongo unibertsitate batean, baina eskolak euskaraz egiten”

Izaro Gonzalez

Elkarrizketa eta komunikazioa bide

Eredu kritikagoak ere badaude, ordea, tartean Okelakoek bultzatu Artisten Meeting Pointa. Hiru hilean behin gai bat aukeratu eta lau artista gonbidatzen dituzte horren bueltan sortzera eta aritzera. Aurrekoetxea: “Artista batzuen lana ikusgarri egiteari ez ezik artistaren pentsamenduari ere ematen diogu garrantzia. Hezikuntza artistikorik ezak arazoak sortzen ditu, eta horregatik da inportantea artista esertzea eta gaiaren edo ekarritako proposamenaren inguruan hitz egitea. Komunikazio berbala zubi bihurtzen da, eta kezka sozialei

buruzko eztabaidak sortzen dira, beste testuinguru batzuetan ere gerta litezkeenak”.

Barcenilla ados dago komunikazio-beharrekin, eta zenbait pauso proposatu ditu: “Hasteko, dibulgazio-lan gehiago egin beharko litzateke, zientzian bezala. Instituzioek programa bereziak eta ondo pentsatuak antolatu beharko lituzkete, artea jendearengana iristeko baina ez modu paternalistan, kontua ez baita jendea ekartzea ardiak balira bezala. Mega-instituzioak egin ditugu eta askoz inteligentetagoa izango litzateke instituzio txiki eta tokian tokikoak egitea eta horiek testuinguru zuzenarekin lan egitea. Artista gazteak erakusten hasteko erreferentziatzeko toki bat ere beharko genuke; Arte Ederren Museoa aukera galdu bat da, neurri ertaineko erakustareto bat baitauka, aproposa. Azkenik, elkarrizketan hasi behar ginateke artearen mundukoak eta kultur-gileak, kezkak konpartitu eta elkar aditzeko”. ■



**Ekitaldi kulturalak,
festak eta antzeko ekitaldietan musika jartzailea...**

tickelsound@yahoo.es / ☎ 629 005 578

Nola konpondu den bi astean lau urteko “desastrea”

Bildu aginte-etxeetatik joateko maletak egiten hasi den honetan, bide onetik ibiltzen hasi da, bat batean, Donostiak datorren urtean hartuko duen Europako Kultur Hiriburua. Azken lau urteek politika kulturalaz irakaspen handirik ez dute utzi. Kultura politikoaz bai.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

GARRANTZITSUENA ez dela zer egiten den eta nola, nork egiten duen dela kontua. Eta orain, ardura horren jabe denaren aulkian beste norbait eseriko denez, denak soluzionatuta dirudi. Magia? Ez: partidukrazia. Lau urtean Donostia 2016 laino beltzen artean irudikatu dute Gipuzkoako oposizioan ziren alderdiek. Azken hauteskundeekin atertu du, akabo ustezko problema guztiak.

Finantzazioan adibidez: Espainiako Kultura Ministerioak tokatzen zitzaiona baino diru gutxiago jarriko zuela jakin genuen aurretengo martxoan Pablo Berastegui kultur hiriburuko zuzendariaren bidez. Hasieran Jose Ignacio Wert polemikoaren erakundeak 12 milioiko ekarpena egingo zuela kalkulatu zuten Donostian, baieztatu gabe zegoen arren. Iritsi, lau milioi baino ez ziren egin. Baina hauteskundearen emaitzak ezagutu ondoren, bi egun eskasean Wertek 180 graduko bira eman du. Baieztatu du “behar den guztia” egingo duela 2016ari laguntzeko. “Konbentziturata nago agintari berriekin kolaborazio eta kooperazio instituzionalerako espiritua izango dela”, gaineratu du Espainiako Senatuan EAJk egindako galderari erantzunez.

Antzeko zerbait proiektuan dirua jarri behar duten bestelako organoekin ere. Carlos Ruiz Kutxa Banku Fundazioko zuzendariak maiatzaren 26an *El Diario Vasco*ri azaldu dionez, 2015. urtean berriz ere sosak izango dira Gipuzkoan kultura babesteko. Datorren urterako aurreikusten da izango dela finantzaziorik 2016rako eta Tabakalerarako -4,4 milioi euro zeuzkan ordaindu gabe eraikin horretan azken bi urteetako partidetatik-.

Periodikoan ere, bihar eguzkitsua

Ondo, gaizki edo erdipurdi egin ditzakezu lanak. Eta gero dator horiek saltzen asmatzea. Komunikazio falta leporatu izan zaio proiektuari, informazioa behar bezala ez zela helarazten, herritarrak ez zirela enteratzen ari, opakotasuna, are, isilkeria nagusi zela suhiltzaileena izandako egoitzan. Ondo, gaizki edo erdipurdi, komunikatu da ordea. Besterik da hortik aurrera zenbait mediok hartu duten jarrera.

Adibide bat kasua ilustratzeko: Europako Jarraipen Batzordeak proiektuaz egin dituen txostenekin gertatutakoa. Hobetu beharreko atalak seinatzearekin batera, behin eta berriz Donostia 2016 “bide onean” zihoala adierazi duten arren, “*inquietud*” eta “*alerta*” bezalako hitzak irakurri ditugu Gipuzkoa ofizialaren titularretan. Batzordearen txostenak leitu, publikatu diren albisteekin kontrastea jarri, eta saihestezina da pentsatzea oinarritzko informazio-lehengaiari beste produktu batzuk gehitu dizkiotela.

Koktelaren emaitza, proiektuaren kudeaketara lerratu dela eztabaida publikoa, programazioa eta ekintza zehatzak bigarren planoan utziz. Afera oso termino sinpleetan polarizatzea lortu da: “Ondo ala gaizki doa Donostia 2016?”. Zer den ondo eta zer gaizki, zein izan behar litzatekeen eredu, eredu bakarra ote dagoen... Gai horietan sartzeko aukerarik ere ez dute izan Bilduk gutxiengoan gobernatutako erakundeek lau urtean -horretarako asmorik izan ote den ere ez dago argi-. Eta etorri dira hauteskundeak, irabazi ditu EAJk eta hasi dira “komunikazio arazoak” arreglatzen.

Donostiako mugimendu sozialek ez dute jarrera argirik hartu Kultur Hiriburuaren gaian, ez alde, ez kontra. EH Bildu alkatetzatik kanpo, aldatuko ote da jarrera hori?



Arerioa garaitu, arerioa zureganatu

Lau urtez proiektuaren gidaritza izan dutenek orain zer jarrera hartuko duten geratzen da ikusteko. Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitza ez zen EH Bilduren oinarri sozial-lek guztiz eroso hartu zuten zerbait. Abiadura nahiko harrigarrian pasa ziren inguru soziopolitiko horretako kide zenbait proiektuak bultzatzen ei zuen “kapitalaren kultura” salatetik alde edo moldez 2016a babestera.

Alderdietatik aparte, oposizio nagusia Desokupatu taldearen inguruan egituratu da, baina hiriko mugimendu sozial gehienek ez dute jarrera argirik erakutsi oraingoan, ez proiektuaren alde, ezta kontra ere. Hori bai, baliteke beste alderdiekin errazago pizten den tonu kritikoa apaldu izana alkatetza eta Diputazioa mugimenduon zenbait eskarirekin bat egiten duen indar politiko baten esku egon delako, egitasmoak hiri-merkatuetan lehiatzeko tresna izateari utzi ez dion arren.

Eta orain, ba al dago masa kritikorik 2016aren eredu kulturala eztabaidan jarriko duen alternatiba herritarrarentzat? Horrelako zerbait gorpuzta hartuko balu, non kokatuko litzateke EH Bildu?

EAJk hauteskunde lehia irabazi du eta orain arerio nagusi izan duena bere esparrura ekartzen saiatuko dela dirudi: Miren Azkarak tek maiatzaren 27an egindako adierazpenetan

2015eko Olatu Talkaren arrakastak markatuko du Kultur Hiriburuaren inguruko diskurtso aldaketa. Agintari berriekin, proiektuaren arazo gehienak desagertu direla dirudi.

esan du ez dizkiola ateak ixten EH Bildu Donostia 2016ko erabaki-organoetan egoteari. Eskuzabaltasun-keinu bezala uler liteke. Edo hori baino gehiago egon liteke atzean. Ezkerreko subiranistak ataka batean leudeke proiektuan segiz gero: gainontzeko alderdien antzeko kultur- eta hiri-ereduarekin bat egin, ohiko partiduen itxura handiagoa hartzeko arriskuarekin; ala proiektutik desmarkatzen hasi, hori egiteagatik beste alderdietatik etorriko den zigorrari bidea erraztuz.

Sei hilabete falta dira 2016. urtea hasteko eta historia honetako protagonista bakoitza berkokatzeko momentua iritsi dela dirudi. ■

**EKAINAREN 14AN
AMURRIOARRAK
EUSKARA PIZTERA GOAZ!**



AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO



Literatura

Kometaren eraginpean
Jon Bilbao
Itzulpena: Katixa Agirre
Txalaparta, 2014



SOS kometa

2010EAN PUBLIKATU ZEN *Bajo el influjo del cometa* Jon Bilbaoren ipuin liburua, eta lau urte geroago *Kometaren eraginpean* (2014, Txalaparta) izenarekin heldu da euskal literaturara.

Jatorrizko edizioak laudorioak jaso ditu idazleak darabilen estilo zorrotz zein zuzenagatik, eta beti erraza ez den gai baten trataeran erakusten duen, diotenez, maisutasunagatik.

Zortzi ipuinetarik azkenak, kometa baten igarotzeak herrialde oso bat argirik gabe utzi duela konstatzen du. Ilunaldiaz baliatuz, ohiko egoera batean pertsonaiek egingo ez luketenaz dihardu. Ipuin honek tesi nagusia biltzen duelakoan, liburu osoari izena emateko ohorea eskaini zaio: kometa baten menpe egon beharra dugu gure barnean egosten diren sentimendu ilun-ezkutuak azaleratzeko?

Kometaren metafora geniala iruditzen zait, ohiz kanpoko gertakizunen zain noraezean dabilen gizakiaren irudiaz mintzatzeko. Zenbait egoerari aurre egiteko gure kabuz kemenik ez dugulako –aurreiritzi sozialak direla eta, berekoikeriagatik edota beldur inkontzienteengatik– gugandik kanpo baldintza aproposak noiz emango diren zain gelditzen gara. “Seinaleei garrantzia ematen

dien horietakoa naiz” (71. orrialdean) esango du *Garaipen ez osoa* ipuineko pertsonaiak, bere bikote-kidearekiko maitasuna agortua dela onartu (nahi?) ezinean dabilela.

Narrazio gehienak *al dente* puntuan idatzita daude. Estilo zorrotzean eta hitzak ongi neurtuta, bai, baina irakurketan aurrera egitea eragozten duen erresistentzia kutsu bat eransten zaio, gehiegizko abstrakzioa.

Deskribatzen diren egoerak egunerokotasunean txertaturik dauden arren, beti izango dugu harekiko haustura dakarren ezohiko elementua, pertsonaien alderdi gaitzesgarrienak askatzeko motor gisa funtzionatzen duena. Nahita baliaturiko ispilua teknika honek, pertsonaiak introspektzio ariketan ezarriko ditu.

Kometaren eraginpean arina izatetik urrun dago. Kontakizun gehienek irakurketa arretatsua eskatzen dute adierazi eta adierazlearen arteko lotura ezinbestekoa egin ahal izateko. Burua fresko edukitzea gomendatzen dizuet ariketa mental honetan murgiltzeko. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



- Abentura kirolak
 - Ezkonaurreko agurrak
 - Familiarteko jarduerak
 - Abentura bidalak
 - Material tekniko alokairuak
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com




Jul Bolinagaren kantutegia oholtza gainean


Noiz: Ekainak 27. Arrasate (Monterron),
21:30ean. **Sarrera:** Doan. **Antolatzaileak:**
Jul Lagunak eta Arrasateko Udala.

JUL BOLINAGA arrasatearra oso gaztetatik hasi zen musikan eta iazko azaroan agertoki baten gainean bihotzeko batek eraman zuen artean, hala jarraitu zuen. Horregatik, lagun, senide, musikari kide eta bidaideek haren omenez antolatu duten kontzertuari Amaierarik gabeko ibilbidea izena jarri diote. Are gehiago, kontuan hartuta bere musika ondareak eta bere izateko moduak oraindik bizi-bizirik jarraitzen dutela, JULHN-E27 matrikula ere sortu dute, inoiz geldituko ez den ibilgailuarena.

Julek bere ibilbide konprometitua eta mundua aldatzeko zuen grina musikarekin azaltzen zuen. Hala, oso biografia luzea du: 1970eko hamarkada bukaeran, Txerra anaiarekin eta lagun batzuekin batera Doble Cero punk taldea sortu zuen; gerora, aldaketa batzuk medio, talde horrek RIP izena hartu zuen eta berorrek diskografia laburra badu ere, izugarritzko eragina izan zuen Euskal Herriko, Espainiako Estatuko eta beste atzerrietako punk giroan. Hainbeste, oraindik ere Euskal Herrian eta harago genero horretan izan den talde eraginkorrenetako bat izanik, belaunaldi belaunaldi erreferentzia izaten jarraitzen duela. Era berean, 1980ko hamarkadan taldeak idatzitako hitz gordinek, tamalez, gaurkotasun handia izaten jarraitzen dute.

RIP taldeak ibilera gorabeheratsua izan zuen agertokietako presentziari dagokionez bigarren milurtekoan Karlos *Mahoma* Agirreurretaren heriotzarekin batera taldea betirako lurperatu zuten arte –aurretik 1990eko hamarkada bukaeran Eduardo Mancebo *Portu* baxu jotzailea hil zen–, baina RIPen etenaldi horietan guztietan Julek ez zion inoiz musikari egiteari utzi. Honako taldeetan parte hartu zuen, besteak beste: Diputación Coral, Los Pitxones, Txapelpunk, Teclas, The Kagas, The Meas, The Magnificent Seven, Karrocerias Betoño, Piztu Punk, Gipsy Voodoo Rednecks eta azken urtean The Potes.

Arrasateko lagunak bihotzekoak eraman eta hiru egunetara agur ekitaldi hunkigarria egin zioten Jul lagunari, eta jende asko batu zen bertan. Baina haren heriotzak herrian eta herritik kanpo eragindako kolpeak eta jasotako elkartasun mezuek animatuta Arrasateko musikaria gogoratzeko ekimen gehiago egitea erabaki zuten; hala sortu zen Jul



Lagunak ekimena. Eta lehen helburua izan zen musika egiteko moduagatik eta izateko era apalagatik iraganeko, egungo eta etorkizuneko hainbat gazteengan halako arrastoa utzi duen lagunaren omenezko kontzertu erraldoia egitea.

Arrasateko Udalarekin harremanetan jarri eta bien artean kontzertu-omenaldi berezia antolatu dute ekainaren 27rako Arrasateko Monterron parkean, eta aurtengo herriko San Juan jaiak luzatuz. Emanaldi berezi honetan Julen kantutegiaren lagin handi bat ikusi eta entzun ahal izango da, ezinezkoa baitzen kontzertu bakarrean guztia jasotzea. Besteak beste, RIP, The Potes, Karrocerias Betoño, Teclas eta Piztu Punk taldeen kantuak izango dira presente. Eta horretarako, Julek bidaide izan dituen belaunaldi ugarietako hainbat eta hainbat musikari igoko dira agertokira. ■

Iker Barandiaran

Hitz gezidunak

JASAILA, PAIRATZAILE IZENA	MURGILARI AZKEN ETA LEHEN BOKALAK	BOKAL ERREPIKATUA	DANI BLANCO	SENDO, FINKO ITSASPEKO	ABIZENA ALDERDI POLITIKOA	ZALANTZAN KATEGORIA
SARGORIA PARE BAT	BIZKAIKO HERRIA USTEKABEKO ERANTZUN	BURDINOLA ZARAUZKO LURMUTURRA		ETIKA PAPUA GINEA BERRIAKO HIZKUNTZA		
PIL-PILEAN PRESTATZEN DEN ARRAIN JAURTI					SALBU HOTS, ZARATA	
		DANBORRA ZUBEROA ETA NAFARROA ARTEKO MENDIA			HERRI HIZKERAN, ETA UZTA	
JARIATZEN DEN GAI	INTSEKTU LANGILE APIAKO HERRITAR		AUZOKOEN ELKARLAN ERASORAKO TRESNAK			
				ZERGA (AL- DERANTZIZ) DEUS		BETEA
HAUR HIZK., MUSUA JAIOITERRIA	GIDER, ESKULEKU OBALO O BARIK				EMAKUME IZENA JOAN DEN URTEA	
		IRAKIN EZ DUEN MAHA- TS ZUKU RADONA				SUFREA 51 ERROMATAR ZENBAKIZ
ZUHAITZA- REN BESOA SRI LANKA- KO HERRITAR			EZARTZEN DUENA ANPEREA			
				FERIA, AZOKA		

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

Zaila

	8	4				1		
1	3			2				
		9	3	6				
3	1							9
			8		9			
7							6	1
				3	2	6		
			9				3	7
		3				9	4	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1.- Perdigoia handia.
- 2.- Lapur, litxarrerro.
- 3.- Sorbalda, bizkarra.
- 4.- Estuki, hertsiki.
- 5.- Neba.

Soluzioak

5	4	6	9	8	1	3	7	2
7	3	2	4	6	5	1	9	8
8	1	9	3	2	7	4	6	5
1	9	3	4	6	7	8	5	2
2	7	6	1	8	9	5	4	3
6	5	9	2	4	7	8	3	1
4	2	9	6	3	6	1	7	8
9	6	1	7	8	5	9	4	3
3	8	4	9	7	5	1	2	6

1. Posta
2. Ohola
3. Solina
4. Tinkia
5. Anala

S	R	I	L	A	N	K	A	R	Z	E	I	A
A	D	A	R	R	A	E	Z	A	R	L	E	
B	I	L	B	O	M	U	Z	T	I	O	S	
P	A	K	I	R	T	E	N	B	E	A		
J	A	R	I	A	G	A	I	A	S	A	T	
E	R	L	E	A	U	Z	O	L	A	N		
B	O	T	A	T	A	M	T	A				
B	A	K	A	I	L	A	T	O				
B	I	E	A	O	M	O	D	E	L	O		
S	A	P	A									
L	A	U	R	A								
K	P	I										

Ama izateko lekuri onenak

SAVE THE CHILDREN GKEaren arabera, 2015ean Norvegia da munduko herrialderik onena ama izateko. Hona hemen estatu onenen eta txarrenen zerrenda:

Estatu onenak

- 1) Norvegia
- 2) Finlandia
- 3) Islandia
- 4) Danimarka
- 5) Suedia
- 6) Herbehereak
- 7) Espainia
- 8) Alemania
- 9) Australia
- 10) Belgika

Estatu txarrenak

- 169) Haiti, Sierra Leona
- 171) Ginea Bissau
- 172) Txad
- 173) Boli Kosta
- 174) Gambia
- 175) Niger
- 176) Mali
- 177) Afrika Erdiko Errepublika
- 178) Kongoko Errepublika Demokratikoa
- 179) Somalia

ERNEST F-CC BY SA



Zerrenda hau osatzeko 179 estatutan amaren osasuna, hezkuntza, diru-sarrerak eta emakumeen estatusa aztertu dira. Harrigarria bada ere, AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Kanada eta Japonia ez dira aurreneko hogeien artean azaltzen.

Lehen batean harrigarria eman

dezakeen beste datu bat da erditzeko unean AEBetako emakumeek Poloniakoekin baino hamar aldiz hiltzeko arrisku handiagoa dutela.

Zerrenda buruan dauden hamar estatuetan 290 emakumetik batek galduko du umea jaio eta lehen bost urteetan; zerrendako azken hamar estatuetan, zortzik. Daturik harrigarriena AEBtako hiriburutik dator, Washingtonetik: munduko 24 hiri aberatsenetako bat bada ere, hark du umeen heriotza-indize handiena. Stockholmen eta Oslon 1.000 jaioberritik bi baino gutxiago hiltzen dira; Washingtonen, berriz, zazpi.

Azterketa argitaratu duen GKEko presidente Carolyn Miles-en arabera, datuok frogatzen dute aberastasun ekonomikoa ez dela amentzako faktore lagungarri bakarra, eta estatuak osasunean eta hezkuntzan egiten dituzten inbertsioek oso pisu handia dutela. ■

120.000 antilope hilik Kazakhstanen, ez jakin zergatik

Munduan dauden saiga antilope espezieko herenak hil dira azken urteetan Kazakhstanen. Ikerlariek *Pasteurella* eta *Clostridia* izeneko patogenoak atzeman dituzte gorpu gehienetan, baina ezin dute ziurtatu jo hori izan denik heriotzen arrazoia.

ttiki.com/339842
(Gaztelaniaz)

Produktu kosmetikoen analisisan aurrerakuntzak

Kosmetikak inguratzen gaitu, eta gehienok erabiltzen dugu produkturen bat edo beste. Eskuetan, aurpegian edo gorpuzteko edozein ataletan ematen duguna aztertzeko sistema aurreratuak garatu ditu EHUko Josu Lopez-Gazpio ikertzaileak.

ttiki.com/339843
(Euskaraz)

Nolakoa litzateke ozono geruzako zuloa Montrealeko Protokolorik gabe?

Montrealen 1987an sinatutako protokoloak klorofluorokarbono produkzioa debekatu zen mundu osoan. Uste denez, horri esker mende honetan ez da ozono zuloa areagotu eta, gauzak ongi, 2050. urte inguruan guztiz desagertuta egongo da. Zaila da esatea zein litzatekeen egungo egoera Montrealgo Protokolorik gabe, baina hainbat hipotesi daude.

ttiki.com/339844
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia




aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16



Euskal Herria ezagutuz

HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

Historiarekin ezkutaketan

Ezkontiderik bako ezkontzak, Rubensen tapizak, lurretik hamar zentimetro eskasera dauden kapitlak, horman tatuaturiko planoak... Ez dira gutxi hizki larriz jasotako historiaren zirrikituetan kiribiltzen diren ezkutuko pasadizoak. Hondarribiko alde zaharretik atera gabe, historia liburuetan hizki larriz eta ttipiz idatzitako istorio franko dago xokorik xoko, nork deskubrituko zain. Ez zara iraganak ustekabeen harrapatuko duen lehena, eta ez zara azkena izango.

Testua eta argazkiak:

| AITOR KALTZAKORTA |

BIDASOA IBALIAK kizkurtzen duen Txingudiko badiaren edertasuna, Jaizkibelen magaletako baso eta labar sakonak, Portuko ostatuen sukaldaritza “tradizional eta post-modernoa”... Erreklamo ugari ditu Hondarribiak.

Lerrootan, alabaina, ohiko ihesaldiak saihestu eta hiribildua izan zenaren harresien barnean gotortuko gara Koldo Ortega historialariarekin batera. Egun buru-belarri ari da Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Elizako dorrearen, kanpaien eta ordularien berreskurapen lanetan, baina tarte bat atera du bistara egon arren hain agerikoak ez diren Hondarribiaren sekretuez gurekin jarduteko.

Harrizko testigantza

Zumarditik hasiko dugu alde zahararen abordatzea. Galtzada-harrizko zolak erromanikotik gotikora eta barrokotik berpizkundera eramango gaitu, Kale Nagusian gora. Lehen geldialdia Santa Maria atean egitea dagokigu. Hiribilduak zituen bi sarre-
ra nagusietako bat da. Garai batean zubi altxagarria izan zuen arren, egun arkua baino ez da geratzen. Gai-
nean 1694ko hiriko armarrria du.

Berau pasatuta ezkerrean utziko dugu “Margolarien txokoa”. Eraikin

historikoz inguratuta egonda ere mende erdira justu-justu iristen den kale kantoiak bisitarien flash ugari bereganatzen ditu. Handik gora goazela ezkerraldean geratuko zaizkigu Udaletxea eta Zuloaga etxea. “XVIII. mendeko arkitektura zibil barrokoaren adierazle”, diosku Ortegak. Bien artean dago, hamargarren zenbakian, Fernando Artola *Bordari* olerkari eta idazlea sortzen ikusi zuen etxea”.

Parean, Pampinot Hotela edo Casadevantearren XVII. mendeko jauregi itxurosoa. Diotenez, bertan negoziatu zuten 1638ko setioko suetena. Eliza pasatuta iritsiko gara alde zaharreko muinoan den Arma Plazara.

Eguzki Erregea Hondarribian

Francisco de Iberok diseinatutako tenplua gotiko estilokoa da eta harresiaren arrastoen gainean eraikitako dago. Kanpandorre atzeko hor-

man elizaren planoaren aztarnak daude, Iberok berak harrian zizelkatu zituenak. Langileek beti begien aurrean izan zezaten jarri zuen bertan eta gaurdaino iraun du erdi-ezkutuan bezain “erdi-agerian”. Hortxe, dorrearekin izkina egiten eta lurretik zentimetro gutxira, zutabe baten buruan beharko lukeen kapitela bat dago, horman integratuta. Ez da elizaren bueltan den kondaira bakarra. Beste baterako utziko dugu, eraikinaren oinarrian diamantedun eraztun bat dagoela esaten duena.

Kontrako horman, aldiz, eliza Karlos V.aren gazteluarekin lotzen duen ataria dago. Bertan hormatuta, Eguzki Erregea handik pasatzeko eraiki zen atea. Frantziako eta Espainiako monarkien ordezkariak Pirinioetako Hitzarmena (Pirinioetako Bakea) sinatu zuten 1659an, Ortegak azaldu digunez. “Hitzarmen horrek Luis XIV.aren eta Filipe IV.aren alaba Maria Teresaren arteko ezkontza ere aurreikusten zuen. 1660an ezkondu ei ziren Hondarribian, baina jakin badakigu Eguzki Erregeak ez zuela zapaldu” haitz gibeletako hiria.

Rubensen tapizak

Barrokoko margolari entzutetsuen artean dagoen Peter Paul

**Arma Plazako Turismo
Paradorea Nafarroako
errege Antso Abarkak X.
mende bukaeran eginarazi
zuen gazteluaren gainean
eraikita dago**



Lerro hauen gainean, Pampinot hotela. Bertan negoziatu ei zuten 1638ko setioko suetena. Eskuinean, goian: Arma Plazako Turismo Paradorea. Haren barruan daude Peter Paul Rubens margolari entzutetsuak egindako sei tapiz (beheko argazkian).



Rubens Hondarribian dago egun. Ez bera, noski, bere obra baizik. “Lau tapiz bilduma egin zituen Rubensek bere bizitza osoan zehar eta horietatik bat” Arma Plazako paradorean –Karlos V.aren gazteluan– dago ikusgai, baina ez guztiz osorik. Bilduma osatzen duten zortzi piezetatik bi galduta omen daude.

Egungo eraikina Nafarroako Errege Antso Abarkak X. mende bukaera aldera eginarazi zuen gaz-

teluaren gainean eraikita dago. “Kafetegian ikusten diren horma zaharrak dira aurrekoaren aztarnak”, Ortegaren hitzetan. 1968tik, “eskuz esku ibili ostean”, Turismo Paradoarea da.

Oraindik deskubritzeke

Alde zaharretik ateratzeko, Kale Nagusitik San Nikolas kalea hartuta iritsiko gara San Nikolas atera, eta Leiba Jeneralaren eta Etxenagusia Margolariaren kaleak zeharkatu-

ta helduko gara berriro abiapuntura. Halarik ere, bidean topatu dugun sekretu andana –zinez andana– utzi dugu zuen begietara agertzeke, gure lekukoa nork hartuko eta istorio hauen lekuko nor bilakatu- tuko esperoan. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.





Euskal Herria ezagutuz

ZUIAKO KUADRILLA- GORBEIA (ARABA)

Etxean bezala Gorbeian

Begietatik, biriketatik, sabeletik eta azaletik barneratzen dira lurron berezko xarmak bisitariaren bihotzetan. Zentzumenak gozarazteko bidea, halere, ez da berez egiten. Horretaz jabetuta, Zuiako Kuadrillako artisau, ostalari eta produktoreak ongizatera daraman bideko gidari bihurtu dira, tradizioari eta lurrari hertsiki loturiko eskaintzaren bidez. Eskualdean bira eginez ongizatera bidaiatzea da gaurko ihesbidea.

| ERIKA BELAR |

Argazkiak: Zuiako Kuadrilla-Gorbeiak utziak

GIZABANAKOON egunerokotasuna monotonoa izatetik frenetikoa izatera pasatu den honetan jendeak balazta zapaldu eta berezko erritmoetara bueltatzeko beharra dauka. Hala, ongizateari, ekologiari eta kirolari lotutako turismoaren gorakada ulertzekoa da. Zuiako Kuadrillako herri eta auzoetan pertzepzioak, denborak eta distantziak aldatu egiten dira, eta, bide batez, erritmoak ere bai. Sarri, ihesaldiaren arrakasta, poliki bezain astiro urratsak ematean datza.

Ongizatea abiapuntu

Eskualdean hedatu den ostalaritza eskaintzaren oinarrian bertako pro-

duktuak eta bertakoen eskua dago. Jatetxe, sagardotegi, erretegi eta ostatu ugari daude inguruan, eta horien ezaugarri komuna bailaran hazitako barazkiak eta haragia dira.

Horren erakusle da Aramaioko Untzilla auzoko Uxarte Nekazal Turismoa. Bertako Gotzone Larrañagaren hitzetan “familia giroa eta ingurune zoragarria” dira bisitariak erakartzeko amua: “Gosaria eta afaria ematen dugu gure baratzeke elikagaiekin. Ogia, bizkotxoak eta mermelada egiten ditugu. Hemengo gaztagile bati hartzen diogu gazta eta Aramaioko ezta ere eskaintzen diegu Uxartera datozenei. Afaritarako

baratzekoez gain bailarako produktuak dira nagusi. Baserri txiki bat ere badugu. Animaliak eta garaian garai-ko produktuak hurbiltzen dizkiegu bezeroei eta ondoren jango dituzten jakiak batzen uzten diegu. Ogia lehengo erara egiten dugu etxeko legamiarekin eta egurrezko labean”.

Osasuna bidelagun

Zuiako Kuadrilla hego-mendebalderantz zeharkatuta iritsiko gara Aramaiotik Lukianora, Gorbeia-aren magalak inguratuz. Bertan dugu zain Casa Lafuente landetxeko Amada Lafuente. Lehengo baserriko bizitza gaurko herritarren eskura jarri nahi izan dute, ohikoagoa izaten ahal den turismo eskaintzari balio erantsia gehituz: “Familia ondareari bueltan emandako ordaina da Casa Lafuente. Ingurune berde-berde batean dago, basoz eta mendiz inguratuta. Entzun daitekeen soinurik zakarrena zintzarriren bat edo zaunkaren bat da, eta hori bilatzen du hona datorrenak, lasaitasuna, sosegua, baretasuna...” Osasuna berreskuratzeko helburuarekin gero eta jende gehiago hurbiltzen dela aitortu digu Amadak.

Gozamena helmuga

Elosu, Aramaio, Bitoriano, Lukiano, Ondategi, Murga eta Murgiako



Zuiako ostalaritzaren oinarrietako bat bertako ekoizleen produktuak dira.



Lasaitasun bila doanarentzat primerako aukera eskaintzen dute Zuiako Kuadrillako hamaika txokok. Bertako garagardoa dastatzearekin uztartu daiteke sosegua, bestalde. Beheko argazkian, lagun taldea ikus daiteke Baias garagardotegiari bisita egiten.

erlezainek ekoizten duten Gorbeia-ko Ezti ezagutzea merezi duen produktua da, onuraz betea. Murgia-ko Ezti Museoa jaso daiteke

Informazio gehiago

Ekoizle eta artisau askok bisita gidatuak eskaintzen dituzte. Eskatu informazioa telefono hauetan:

- 945-43 04 40
- 945-43 01 67

tara joan daiteke berau dastatzera, eta Aramaion, Barajuen eta Oletako gaztandegietara. Eskualdeko ogi, euskal pastel, turroi eta bestelakoak ere aipatzekoak dira, bereziki Aramaio-ko Euzki okindegia eta Murgia-ko Echebarria, Gopegiko Artze-ki, Izarrako Urtaran edo Zarateko Blanca Antoñanarenak.

Garagardo naturala ere ekoizten da kuadrillan. Baias du izena eta Gorbeia-ko mendigunean sortzen den Baias erreko urarekin egiten da, Urkabustaizko mikrogaragardotegi batean. Aramaio-ko bailarako

sagarrondoetako emariarekin, aldiz, sagardo eta sagar zuku naturala egiten dute beste produktore batzuek.

Begoña Fresnedak eta Jon Zuzok, Nafarrateko Gaztaren ardura-dunek, egurrezko eta lore lehorrezko eskulanak ere egiten dituzte; zinkeko platerak, pitxarrak, lorontziak... Kremak ere bai. Nuria Cone-sa (Nuna) Artisautza Sari Nazionala jasotakoa da. Domaikiako lantegitik mundu osora esportatzen ditu feltroarekin eta latxa ardi-artearekin eskuz egindako pieza berritzaile eta apartak. Looz Artisautza, Aramaio-ko bailaran inspiratzen da eta larrua eta makramea lantzen ditu. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.



Gorbeia
www.gorbeiaeuskadi.com

TURISMO BULEGOA:
(GORBEIAKO HEGOALDEKOA)
MURGIA
945 43 01 67
945 43 04 40



Zuiako Kuadrilla
Cuadrilla de Zuia
www.cuadrillazuia.com



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



ARABA | ALAVA
GUIPUZKOA
EUSKADI

Daliaren guda

HAU IDAZTEN ARI NAIZEN egun honetan, maiatzaren 25ean, duela 226 urte (1789an) hil zen Anders Dahl suediar botanikari sonatua. 38 urte besterik ez zuen, baina bere txokoa eginda joan zen mundu honetatik. Claes Alströmerek Lorategi Botanikoaren zuzendaria izan zenak arrasto polita utzi zuen, nonbait. Bera hil eta bi urtera iritsi ziren Mexikotik Madrilera, errege lorategi botanikora, lehen daliak; hango langileak, Antonio José Cavanilles botanikariak, suediarren ohorez jarri zion generoari *Dahlia* izena. Garai hartan landareen jakintzara iraultza ekarri zuen Linneoren esaneko jarraitzaileak ziren biak.

Daliaren izenaren istorioa polita bada, izana politago. Mexikotik ekarri zituztenean bere loreen dotorezia aipatzen zuten, baina baita lurpeko tuberkulu jangarriak ere. Patata ere (*Solanum tuberosum*) antzeko sonaren lurrinetan ekarri zuten: lore politak eta tuberkulu jateko onak. Han, Ameriketara jaten zituztela, alegia. Europara ekarri eta botanikariak borrokan, nork dotoreagoa izan. Eta dotoreziaren graduak jangarriari gaina hartu. Zeinek dalia gorriagoa, zeinek deigarriagoa, zeinek petalo ugariago zuena, zeinek lore deigarriena... XIX. mendearen hasierako baliabideekin, botanikarien beste gudu bat. Daliaren guda.



BISWARUP GANGULY-CC BY

Dahlia generoko landareek lore ederrak dituzte. Haiek txundituta, landareon tuberkulu jangarriak baztertu genituen European, ez ordea Mexiko jaioterrian.

Daliek ezaugarri genetiko berezia dute: oktoploideak dira; hau da, kromosoma baliokideak zortzinaka dituzte. Landare gehienek, berriz, binaka. Hori gutxi balitz, kromosoma horien barruan geneak batetik bestera eramateko gaitasuna duten transposoiak edo zati mugikorak izateko erraztasuna dute. Hori dela eta, *Dahlia* generoan 42 espezie badaude ere, milaka eta milaka aldaera sortu dira. Ia erabat lorearen kolore nahasketa eta forma oinarri hartuta egindako lana; ia-rik gabe, erabat.

Loreek txoratuta, lurpeko tuberkulu jangarriak azkar abandonatu zituzten. Baita askoz emankorra goa zen patata aldamenean zutela-

ko ere. Baina Mexiko jaioterrian aztekek usu jaten zuten, eta, gaur egun ere, erabiltzen dute tuberkulua hango sukaldaritzan. Alkatxofaren tankerako gustua omen du. Erdialdeko Amerika osoan edari batzuei lurrin berezia eransteko tuberkulu erreka darabilte. Loreak ere ona dira jateko, gozoak eta geza punttua dutenak: tipularekin entsaladetan, lekaleekin eta zopetan...

Lehengo mendearen hasieran, Ipar Amerikan eta European, intsulina aurkitu aurretik (1923), dalien tuberkuluetatik erauzitako gai bat hartzen zuten diabetikoek eta hetiko edo tisikoek.

Mexikon bai jakin, “lore nazionala” izendatua dute. ■


EKILORE
Lorezaintza eta loradenda

Ordutegia:

Astelehenetik Larunbatera 10:00-20:00

Igande eta Jai egunetan: 10:00-14:00

© 943 795 546 • vekilore@gmail.com
Elorregi bidea • Arrasate (Gipuzkoa)



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 • 20560 Oñati (Gipuzkoa)

© 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net • www.tanatorio-gipuzcoa.com

Zestoako Udalak eskaintza berezia egin die herritarrei



40 BARATZE EKOLOGIKOK osatzen dute Zestoako Udalak 2013an Iraetan martxan jarritako baratze-parkea. Ekimen honi lotuta, Udaleko Euskara eta Ingurumen Sailek eskaintza berezia egin diete lehenik baratze-parkea lantzen dutenei: *Bizi Baratzea* liburuia, Biolurren *Gida* eta ortuaren plangintza 20 euroan eskuratzeko aukera. Ingurumen teknikaria den Izaskun Larrañagak azaldu duenez, “nekazaritza ekologikoa eta euskara sustatzeko oso material egokiak iruditzen zaizkigu”. Ekainaren 8tik aurrera herri osoarengana zabaltzen dute eskaintza: etxe bakoitzeko liburu sorta bat eskatu ahal izango da. Larrañagaren hitzetan “jendeak gustura hartu du, harrera ona egin dio”.

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Hernaniko Karabelekon emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.



Eskuratu liburuia sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA n erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburuia.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako ondoko zutabeetan non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburuia salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN HITZALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Ekainak 10 Arrasate

KulturAtea, 19:00etan.
Ereina Jan elkarteak antolatuta.

Ekainak 11 Leintz-Gatzaga

Gatzaren Museoa,
18:30ean.

Ekainak 12 Alkiza

Don Juanena Eraikinean
19:30ean

Ekainak 15 Lekeitio

Kultur Etxeko Azkue aretoan,
19:00etan. Lekitito-bedarra elkarteak antolatuta.

Ekainak 16 Ordizia

Barrena jauregian edo D'elikatuz museoan,
19:00etan.

Ekainak 17 Gernika

Astran, 19:00etan. Urdai-baiko Kontsumo Ekologikoko Taldeak antolatuta.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argia.com
☎ 943 371 545

Otokichi, lehen turista japoniarra



XIX. mende hasierako merkataritza ontzi japoniarra. Otokichi (1818-1867) antzeko ontzi batean iritsi zen nahi gabe Ipar Amerikara.

JAPONIA, 1832. Tokugawa shogunerriko lege drakoniarren arabera, japoniarrek ezin zuten herrialdetik irten eta delitua heriotzaz zigortzen zen. Otokichik 14 urte zituen eta arroza eta portzelana garraiatzeko Nagoya eta Edo arteko itsasbidea egiten zuen hamabost metroko belaontziko ontzi-mutila zen. Ekaitz gogor baten ondorioz, ordea, ontzia jitoan galdu zen Ozeano Barean. Arroz kargak zer jana eman ziren luzaroan, baina eskorbutoak gogor eraso zion eskifaiari eta hilabete gutxian, Iwakichi, Kyukichi eta Otokichi bera ez beste guztiak hil ziren.

Urtebete pasatxo galduta ibili ondoren, egungo AEB eta Kanada arteko mugara, Oregongo kostalde-
ra, iritsi ziren. Makah tribukoek ez zieten harrera ona egin, baina indiarrek gatibu hartutako bisitari exotikoen berri berehala iritsi zitzaion McLoughlin kapitain ingelesari. Mendebaldeko asiarrak bereizteko daukagun gaitasunik eza ez da berria, eta kapitainak txinatartzat jo zituen hiru gatibuak. Ingalaterra Asiako erraldoiarekin merkataritza harremanetan hasia zen, eta militarrek pentsatu zuen hirukoteari etekina atera zekiokela. Japoniarrak askatu eta Vancouverrean eraman zituen lehenik. Hango erretoreak ingelesa irakatsi zion eta 1834an prest zeuden metropolira joateko. Berritro ere Ozeano Barea zeharkatu zuten:

Hawaiitik igaro, ia Antartikaraino iritsi eta, zazpi hilabeteren buruan, Londresera iritsi ziren. Baina gobernuak beste lehentasun batzuk zituen, eta garai hartan munduko metropoli nagusia zenean turismo pixka bat egin ondoren, hiru marinelek berritro itsasoratu behar izan zuten.

Macaora iritsi ziren. Otokichik txinera ikasi zuen han, eta 1937an Morrison ontzi estatubatuarrean sorterrira itzultzeko aukera sortu zitzaion. Baina Japoniako lege isolatzaileak indarrean zeuden oraindik eta ontzia kanoikadaz hartu zuten porturen batean aingurak botatzen ahalegindu ziren aldioro. Iwakichi eta Kyukichiren arrastoa hor galdu zen, baina Otokichik bidaiatzen jarraitu zuen, merkataritza-ontzi ingelesetan itzultzaile lanak eginez.

1854ko urrian Ingalaterrak eta Japoniak adiskidetasun ituna sinatu zuten; negoziaketetan Otokichik jardun zuen itzultzaile. Japoniako Gobernuak ordurako pilotuta zeuzkan heriotza zigor guztiak barkatu zizkion eta uhartearen geratzeko baimena eman zion. Baina John Matthew Ottosonek —izena ingelestuta zeukan ordurako— eskaintzari uko egin zion.


1867an hil zen Singapurren, shogunerria ezeztatu zen urte berean. Mende luze bakartuta egon ondoren, Japonia mundura zabaldu zen handik aurrera, urte batzuk lehenago Otokichik nahi gabe egin bezala. ■

Arrastoak

Nondik dator Oz izena?

OZEKO AZTLA Judy Garland protagonista duen 1939ko filmagatik da bereziki ezaguna, baina Ozeko irudizko mundua lehenago sortu zen, 1900. urtean, Lyman Frank Baumek (1856-1919) *Ozko azti miragarria* haurrentzako liburu argitaratu zuenean. Gerora beste hamahiru liburu idatziko zituen unibertso berean kokatuta eta guztiek “Oz” hitza zuten izenburuan. Baina nondik dator “Oz” izena?

Askotariko azalpenak eman zaizkio izenaren jatorriari: Percy B. Shelleyren *Ozymandias* izeneko poematik datorrela; Oz ontza hitzaren laburdura izaki, urrearekin lotuta dagoela, eta obran agertzen den baldosa horizko bideak urrea sinbolizatzen duela... Baina Baumek berak 1903an eman zuen azalpenik sinpleena (eta fidagarriena egileari sinesten badiogu, behintzat): “Bulegoan artxibatze-ko armairutxo bat daukat, mahaiaren parean. Istoriako izenburua pentsatzen ari nintzen, eta dagoeneko ‘azti’ hitza sartzea erabakita neukan. Begiak hiru tiraderatan idatzitako hizkietara joan zitzaizkidan. Lehenak A-G, ziren, hurrengo tiraderan H-N jartzen zuen, eta azkenekoan, O-Z. Eta ‘Oz’ aukeratu nuen”. ■



«UGTk eta CCOOk markatuko dute lehen urte politikoa»

Iruñea, 1976. Sindikalista. *Diario de Noticias*eko kazetaria da, eszedentzian une honetan. ELAko komunikazio arloan eta zerbitzu publikoan ari da lanean egun. Hainbat libururen egilea. *El corralito foral* (Pamiela) da azkena. Entzute handiko saioa dagoeneko.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

RODEZNOKO KONDEAREN PLAZAN bildu gara Iván Giménez idazlearekin, Iruñean. *Monumento a los caídos* eraikinaren ondoren. Bertan daude lurperatuta Sanjurjo eta Mola jeneralak, frankismoaren ikurrak. Euren inguruko karriketan bizi dira Nafarroako erregimenaren buruetako asko. *El corralito foral* gaurkotasan handiko liburua da. Alta, berean historiaren ehun urteko nafar ezaugarri esanguratsuenak idatzi ditu egileak: “Nafarroako erregimena nola dagoen eraikita eta zein diren bere sako-neko oinarriak deskribatu ditut. Duela hiru urte hasi nintzen idazten liburua, baina ez nituen hauteskundeak, ezta *Corralito* delakoa desagiten hasiko ote zen ere kontuan hartu”.

Nafarroako foru eta udal hauteskundeetako emaitzak ezagutu ondoren, nola ikusten duzu egoera politikoa?

Hauteskundeen aurretik eta ondoren, “zer gertatuko da?” galdetu didate. Liburuan mende batean gertatutakoari buruz idatzi dut, ez etorkizunean gertatuko denari buruz. Nork daki, ezta? Ez naiz igarlea, kazetaria baizik. Noski, liburuak balio zuen duela hiru urte, idazten hasi nintzenean, balio du orain eta balioko du hemendik hamar urtera ere, edo hala espero dut. Izan ere, erregimenak ez du Nafarroa galduztzat emanen. Erregimenaren buruek hor segitzen dute, baita gizarteak ere. Nafarroako sakoneko botereak eta gizartearen errealitatea nolakoa den azaltzeko idatzi dut liburua.





“Eliteek antieuskalduntasuna erabili dute. Baina hori moztar bat baino ez da, ez da sustraitutako sentimendua”.

Egungo nafar presidente Yolanda Barcinaren esanetan, Alemania naziaren bezperetan dago Nafarroa.

Barcinaren kasua berezia da, gero eta hurbilago dago bere karikaturatik, giñol bat bihurtu da. Bera da erregimena galbidean sartu izanaren errudun nagusia, eta berak badaki hori. Miguel Sanzek Nafarroako Gobernua eta UPNko zuzendaritza utzi zituenean erregimena une goienean zegoen, dena kontrolatuta, Parlamentuan ia gehiengo osoz. UPNk lotura estua zuen PSNrekin, baita UGT eta CCOOekin ere. *Corralito*ak Nafarroako zentraltasuna hartua zeukan, inork ez zuen berau higatzeko modurik ikusten. Sanzek Barcinari erreleboa eman zion, UPNkoa lehenik eta lehendakari izateko hautagai moduan gero. Barcinak alderdiaren eta Gobernuaren gestioa eraman zituen. Boto eta zinegotzi are gehiago lortzen hasi zuen agintaldia, izarra bihurtu zen, garaiezina. Alta, Iruñeko alkate figura fin hark bi urtetan pikutara bidali zuen dena. Krisi ekonomikoa dela, bestea dela, aitzakiak baino ez ditu erabili, erabaki txarrak bereak izan dira. Barcina azken ehun urtean eraikitako erregimena porrotera eraman dutenen artean, figura nabarmenetako bat da.

Santi Leone historialariak “orain arteko zailena lorturik, errazena lortu dugula erran behar dugu” esan du. Bixente Serrano Izko politikariak berriz, “ahal izatetik nahi izatera

pasatzeko unea heldu da” idatzi du artikulu oso adierazgarri batean.

Beharbada, orain arte perspektiba historikoa falta izan zaigu gertatzen ari den guztia ikusteko. Bizitzen ari garenak etorkizuna ongi ikusteko perspektiba berria eman behar digu. Alegia, Iruñean oso ohituta gaude Sanzen eta Barcinaren aurka egiten, erregimenaren aurka egoten. Diktaduraren ondoren “Francoren aurka hobeki bizi ginen” leloa zabaldu zen. Alegia, oposizioak ez zuen inolako ardurarik hartu alternatiba bat eraikitzeko, diktaduraren kontra borrokatu zuen bukatu arte. Franco hil zen, baina eraiki zen alternatiba hala moduzkoa izan zen. Orain hori ez zaigu gertatu behar, Juan Kruz Lakastak modu ironikoan dioenez, “espero dezagun Barcinaren aurka askoz hobeki bizi ginen ez esatea”. Serrano Izkoren iritzia pisuzkoa da, ez da edonor. Artikuluan antzeko abisua eman nahi izan du, alegia, asko kostatu zaigu honaino iristea, eta orain egungo estatusa aldatzea lortu behar dugu. Aldaketaren aldeko alderdiek esan duten moduan, PSN izan da aldaketarako oztoporik handiena. Beraz, lehen oztopoa gaindituta, ez dugu harri beraren kontra berriro estropezu egingo, ezta? Harria bide bazterrean dago orain, beraz, ez ekarri berriz bide erdira. Serrano Izkok hori esan nahi zuen eta ni ados nago horrekin.

Zure ustez, ez dago PSNz fidatzerik.

Liburuan diodanez, PSOEek ehun urte luzeko historian, Primo de

Riveraren diktadurari babesa eman zion. 1934ko edo Asturiasko Iraultza antolatu zuen. UGT eta PSOE II. Errepublikako buruak izan ziren, gerran eta haren ostean izugarritzko errepresioa pairatu zuten. PSOEek denetarik egin du bere historian, eta une honetan inork ez daki PSN hemendik hamar urtera non egongo den. Orain baina, dau-den tokian eta moduan daude.

UGTko eta CCOOko kideei zer pentsa eman beharko lieke liburuak.

UGTk eta CCOOk beren historia egin dute Nafarroan, haiek hala nahita. Nondik datozen eta non dauden ikusi besterik ez dago, une honetan erregimena desegiteko eta zerbait berria eraikitzeko oztopo handiak dira, areago, handienak izan ote diren nago. Alderdi politikoek baino pisu handiagoa dute Nafarroan, alta, beren biziraupena hari batetik zintzilikatuta ikusten dute orain. Hilabete hauetan bi sindikatuak nola mugituko diren ikusi behar da, baita gobernu berriak haiekiko hartuko duen jarrera arretaz begiratu ere. UGT eta CCOOren jarrerek markatuko dute hein handian hurrengo urte politikoa.

Alderdiak alderdi, aldaketa ere jendartean eman beharko da. Zure ustez, ematen ari da jada?

Bai. Kontua da, 26 zenbakia magikoa bihurtu dela [aldaketarako behar diren 26 diputatuak], baina zenbakiak berez ez digu ezer ematen. Orain neurriak hartu behar

dira, eta bien bitartean, erregimenak izugarritzko presioa eginen du Madrilgo lobbyek eta presio taldeek babestuta. Europatik datozen neurriak —defizit publikoa, besteak beste— erabiliko dituzte gobernu berria estutzeko. Neurri horiek leku guztietan presionatzen dute, baina Nafarroan aurrerantzean are gehiago. Politikariak erdian izanen dira, eta beste aldean erregimenaren kontrapisuek egon behar dute: eragile sozialak eta oposizioko benetako sindikatuak. Jendarteak presioa egin behar du. ABBetako depresio handiaren garaian, Roosevelt presidenteak hau esan zien sindikatuak: “Planteatzen duzuen oso ongi iruditzen zait, baina zuek behartu beharko nauzue orain nahi duzuen egitera”. Gizarte eragileek behartu behar dute bereziki gobernu berria benetako aldaketa egitera.

Euskal Herria ez dago izaterik Nafarroa gabe, eta erregimenarentzat Nafarroa ez dago Espainiarik gabe

Nafarroa orain arte izan den moduan izateko bi interes uztartu dira: hemengo elitearen eta Madrilgo botereen interesak. Hemengo eliteek kontrol fiskala atxiki dute betidanik, dirua betikoen poltsikoe-tan egon dadin eta klase borrokan irabazle segitzeko. Horretarako ikurak erabili dituzte. Antieuskalduntasuna adibidez. Baina hori mozo-rra bat baino ez da, ez da sustraitutako sentimendua, poltsikoak beteta mantentzeko helburuz eraikitako tresna baizik. Madril-eko Nafarroa Euskal Herriatik ahalik eta urrunen izatea du helburu, bistan da, Euskal Herri osatuan zer gerta ere. Hartan askoz errazagoa bailitza-teke Katalunian gertatzen ari dena hemen ere gertatzea. Nafarroarik gabe ez dago Kataluniako eredu-a hemen izaterik. Hemengo eliteek arazo bat dutenean Madrilera dei-tzen dute: “Ez badiguzue eskatzen dizuegun laguntza ematen, Euskal Herrian sartuko gaituzte”. Madril-ek berriz, “laguntza emango dizuegu, gurekin egonez gero”. Bi interes horien orekan atxiki dute hemengo estatusa. Bi interes horiek kolokan daude orain, bai Espainian bai Nafarroan. Hori da funtsean *El corralito* foral liburuan adierazi nahi dudana.

Liburua ez dela gustukoa izanen diozu hasieran. Hilabete batzuk pasa ondoren, hori berresten duzu?

Liburua denentzat gustukoa izatea zaila da, denontzat deserosoa dela esan nahi dut. Foruak, Sanferminak, Osasuna aipatzen ditut, baita Aralarko Aingerua ere. Done Mikel aingerua euskaldunen ikurra da Nafarroan, ez bazara aingeru zalea, arraioa, batzuek zure euskalduntasuna zalantzan jartzen dute. Liburua lotsagabea da, eta horrek badu munta. Izan ere, dena kolokan jarri behar da, dena berriro eraikitzeko denon artean eta denok nahi dugun moduan. Tonu irreberentea du liburuak, asko arriskatu naiz. Kazetaria eta idazlea naiz, eta egundaino ez nuen hain tonu zorrotzean idatzi. Adibidez, foruei buruzko kapitulua arriskutsua da. Begira Ciudadanos-i gertatu zaiona foruei buruz edozein gauza esateagatik.

“Ehun urtean eraikitako erregimena porrotera eramán dutenen artean, Barcina figura nabarmenetako bat da”

Liburuaren gakoak bi aiputan bildu daitezke: begi-bistan duguna azaltzeko etengabe borrokatu behar da, eta, memoria muturrera eramanez gero, berau mehatxagarria bihurtu daiteke.

Memoria historikoaren inguruan badago iragana eta oraina bereizteko joera, joera inkontziente, borondate onekoa nahi baduzu. Gauza bera ez balira bezala jokatzeko joera dago, eta gauza bera dira. Orainaldia zer da? Bada, lehenaldia- ren ondorioa. Hala ere, eta horretaz nik baino hobeto idatzi dute Rafael Chirbes eta David Becerra idazleek, memoria historikoa muturreraino eramatea oso arriskutsua da egungo elkarbizitza sustatzeko. Nafarroako iraganean eraikitakoa, egungo erregimena dena, oinarrituta dagoelako injustizia edo krimenean. Hori adierazi behar dugu, baina memoria historikoak ez du soilik Errepublikako martirrei edo biktimei omenaldia eskaintzeko izan behar. Hori egin behar da, argi eta garbi, baina hortik

harago joan behar da, eta ez dakit hori egiteko gai izanen garen.

Argitu hori gehiago.

Hemengo egitura ekonomikoak, mediatikoak edota erlijiosoak krimenean oinarrituta daude. Egileak izen-abizenekin agertzen dira liburuan, eta hori egitea oso konplikatu eta arriskutsua da.

Egungo erregimena ulertzeko ezagutu beharreko izenak. Askoren artean, adibidez, Felix Huarte edota Miguel Urmeneta frankistak.

Urmenetaren kasuan, bere biografia izugarria da, kontatu behar da, baina baloratu behar da bere testuinguruan. Adibidez, aurtun urrezko domina eman diote. Oso adierazgarria da. Baina, liburuan kontatzen dudanez, ez gara gai ildo politikoa eta gainontzekoa bereizteko. Inork ez du zalantzan jarri behar, bai Huarte bai Urmeneta pertsona onak izan ziren edo ez, hori ez dago eztabaidan, beren jardura politikoa baizik. Zergatik eman zaie urrezko domina? Jardura politikoarengatik, ez pertsona onak edo gaiztoak izateagatik. Huarteri ez diote domina eman kulturako mezenas izateagatik, ezta Urmenetari Euskal Herria Irratia eta Ikastolak eraikitzeagatik ere, diputazio frankisten buruzagiak izateagatik baizik. Kontua hori da, ez besterik.

Arturo Campionen kasua ere adierazgarria da oso.

Bai, ez bairik gabe. Nafarroako historia oso gatazkatsua izan da, eta momentu historiko zehatz batzuetan erabaki zailak hartu behar izan dira. Hor dago koska. Campionen





“Dena kolokan jarri behar da, dena berriro eraikitzeke denon artean eta denok nahi dugun moduan”

kasua beste adibide bat da, askoren artean. Hara, nik bere izena daraman euskaltegian ikasi nuen euskara, eta harro nago horretaz. Campionek erreferentea izan behar du ildo kulturean, baina ahaztu gabe politikoki kontserbadorea zela, eskuinekoa, Vatikanista. Horregatik bihurtu da erreferente desagokia eta oso zaila gaur egun, erregimenetik kanpo gaudenentzat. Nola aldarrikatu Campion? Ildo kulturaletik bai, baina gainontzekoetatik ez.

Foruez idatzi duzu. Terminoa gaizki erabilia dela diozu. Zer da forua?

Mañeruko zinegotzi batek orain dela mende bat esan zuenez, “*Los fueros son los cojones de Navarra*”. Abiapuntu bezala kontuan hartuta ez da eztabaidarik izan, ezta izaneren ere. Foruak ez baditugu aztertzen, ez dugu deus egiterik. Foruek ez dute lege zahar sakratuak izan behar, nork erabakitzen duen ebaztea da giltzarria. Foruei buruzko eztabaida seriorik egiteko ohiturarik ez dago Nafarroan, foruak ikur hutsa direlako. Eta mito. Mitoak erabilgarriak dira, eta errepikatzearen poderioz egia bihurtzen dira.

Volkswagenen BEZarekin gertatu dena adibide paregabea da. Estatuak arazo erraldoi bat sortu du egun batetik bestera. Nafarroa amildégira eramán du, bi urte eman dugu zer egin jakin gabe eta orain euren esku gaude. Orain konturatu al gara Madrillgo botereen eskuetan

gaudela? Euren borondatearen arabera Nafarroa izanen dela ala ez? Nafarroak bideragarritasunik izanen duenez orain konturatu al gara? Une batez, neurri magiko bati esker, dena konpondu dute. Euren nahikariaren esku gaude. Erabakitzeke ahalmena haiek daukate.

ETA fenomeno aipatzen duzu liburuan, erregimenaren iraupenean izan duen eragina.

Zoritzarrez, Nafarroan nahiz EAEn zein Madrilen ETArek mamua erabiltzen ari dira, kosta ahala kosta, euren estatusa mantentzeko. Eta hori kritikagarria da, noski. Halaber, egiari zor, ETA orain mamua da, baina duela sei urte errealtate latza zen. Gaur posible litzateke bizitzan ari garena ETAk indarrean segituko balu? Bada, ene uste apalean, ez. Liburuan aipatzen dudanez, irekitze edo *glasnost* moduko bat gertatu da azken urteetan. Gainera, bai Estatuan bai Euskal Herrian, *glasnost* hori izan dadin, ETArek desagertu

“Arturo Campionek erreferentea izan behar du kulturean, baina ahaztu gabe politikoki kontserbadorea zela, eskuinekoa, Vatikanista”

na elementu gehigarri bat izan da. Bat baino ez, baina garrantzitsua.

Iraganean beste *navarrismo* moduko bat izan zen: euskalduntasuna eta Euskal Herria bere egiten zituena. “Nafarroa edozer gauza, gorria izan ezik!” zioten navarristek.

Hori irakurtzean zinez harritu nintzen. Alta, duela ehun urte, Nafarroako eskuindarrak euskaltzaleek ziren, ezkertiarra izateko jakobinoa izan behar zen. Euskalduna izatearen ezaugarria interesen arabera izan da. Interesak aldatzen direnean euskalduna izatea edo ez aldatzen da. Batek daki, *navarristek* hemendik 30-50 urtera hori aldatzeko interesa badute, hori aldatuko dute, edo haiek aldatuko dira.

Liburuko hitz bat azpimarratu aldera, gezurra azpimarratuko nuke.

Eliteak bere pribilegioei eusteko gizartearen kohesioa behar du, haiek piramidearen erpinean daude. Eliteak berez oso txikia izan behar du, bestela ez da elitea. Piramidearen erpin berean mantentzeko piramideak oinarri zabala behar du. Sare klientelistak dira erpinetik oinarriara pribilegioak edota oreka mantentzen dituztenak, ongi elikatuak betiere. Gizarte-kohesioa lortzeko nafar ikurrak erabili dituzte euren nahieran, Txupinazoa, Sanferminak –Sanferminetako arropa zuria barne–, Osasuna edota Xabierraldia. Ez dut esan nahi, Osasuna edo Sanferminak gure gainetik kendu behar ditugunik, aitzitik, gezurrak azaldu eta euren erabilera maltzurra salatu behar dugu beren onera ekartzeko.

Dena den, gauza bat da liburu bat idaztea eta beste bat gizartea aldatzea. Eta, hala ere, hori ere egiten ari gara. Adibidez, Sanferminetan (San Fermin Peñako kidea naiz) Memoriaren autobusa ekimena antolatzen dugu. La Veleta Peñako kideen ondorengoei txupinazoa bota dezaten. Arropa zuria eurek asmatu zutela aldarrikatzeko, baita eurentako asko fusilatuak izan zirela gogoratzeko. Gauzak aldatzen dira gauzak egiten. Liburuak idaztea ongi dago, baina gero kalean eta eguneroko bizitzan ekimen horiek sustatu behar dira. Ez dezagun hori begi-bistatik galdu. ■

Udako pediatria ordezkoa euskalduna izan dadin

BALEIKE



Zumaiako osasun zentroan mediku eta pediatria erdaldunak elebidunez ordezkatzeari lortu zuten iaz.

HAINBAT HERRITAN hala gertatu zen. Medikuek eta pediatrikuek udako oporrak hartu zituzten eta elebidunak ziren haien ordezkioak, batzuetan, elebakar erdaldunak ziren. Herritarren eta euskalgintzako eragileen presioari esker ordezkioak euskaldunak izatea lortu zuten kasu batzuetan.

Aurten gisa berean ibili beharrik egon ez dadin, Osakidetza eta Osasunbideari prebentzio lana egiteko eskatu zaie. Eskara

ondokoek egin dute: Kontseiluaren baitan biltzen den osasungintza lantaldeak (Behatokia, EHE, OEE, Topagunea eta UEMA), LAB, Medikuntzako Asanblada eta Berdin elkarteak.

www.euskarazbizinahi.dut.eus webgunean, herritarrek osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko izan dituzten arazoak berri emateko modua izango dute hemen: aurrera. Behatokiak bideratuko ditu eskaera edo kezak.

Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna berresteko beste aukera bat

FRANÇOIS HOLLANDE Frantziako Estatuako presidentek gutuna bidali die alderdikide dituen diputatu bretoi bati eta senatari biarnez bati. Idatzi horren bidez dakigu, beste behin, Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna berresteko bidea abian dela.

2012an, ituna berretsiko zuela esan zuen presidentek eta nonbait esandakoa betetzeko asmoa du. Kontua da promesa eta saiakera gehiago izan direla eta 23 urtez Frantziako Estatuak ez duela halakorik berretsi. Hollandek ez luke erreferenduma bidea aukeratzeko, gobernuak egin beharreko lege konstituzionalarena baizik. Parlamentuko diputatu eta senatarien hiru bostenak baiezkotzea eman beharko luke.

Ituna berrestea, ez berrestea baino hobea. Dena dela, Espainiako Estatuak 2001ean izenpetu zuen eta badakigu zein jarrera duen. Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak hortaz, horrela dio *Berrian*: “Orain, berrestera doala, mesfidantza puntu batekin begiratzen ahal diogu kontu horri. Zenbateraino gure hizkuntzen berreskurapenerako beharko lirartekeen engaiamenduak hartuko lituzkeen”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Bazterketa sozialera behartuta gazteria

EGOERA EKONOMIKO ETA POLITIKOARI ez bazaio lehenbailehen buelta ematen, gure gazteria bazterkeria sozialean bizitzera beharturik aurkituko da. Eta nolako jendartea sortu dezakegu, horren zati garrantzitsua, etorkizuna eraikitzeko ardura duen gazteria, sozialki bazterturik baldin badago? Benetan, egoera larria eta kezagarria da honakoa. Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) gogorarazi digu egoeraren larritasuna, mahai gainean datu estatistikoak jarrita.

Erakunde horren txosten baten arabera, Espainiako Estatuan 16 eta 29 urte artean dituzten gazteen erdiak –Hego Euskal Herriaz ari da– ez dauka gaitasunik ordenagailuak lanerako erabiltzeko. Espainia azken aurreko postuan dago –Italiaren aurretik baino ez– Korea txapeldun den arlo horretan. ELGE osatzen duten munduko 34 herrialde garatuenetan, 35 milioi gazte daude ez ikasi ez lan egiten dutenak. Horrek esan nahi du ez daudela prest herrialde horietako hezkuntza sistema, gizarte edo mundu labora-

lean parte hartzeko. Izan ere, nola ikasiko dute lan arlora aplikaturiko informatika, lanik ez badute? Eta okerrago dena, izateko itxaropenik ez badute?

Egungo sisteman barneratze sozialerako tresna nagusia lana da; garapen pertsonala lan-munduan sartzearekin lotu izan da. Hala, lanik ez edukitzeak heriotza zibilera daramatza gure gazteak. Bazterkeria sozialak ondorio ugari ditu: delinkuentzia, droga, suizidioak, eta bere gazteak zatikatu eta hiltzen dituen jendarte gaixo bat sortzea.

Gobernuen erantzukizuna funtsezkoa da –izan Madril, Gasteiz edo Iruñekoa–, baita eragile politiko, ekonomiko eta sozialena ere. Gazteen langabeziaren odolustea geratu beharra dago eta indar gehiago bideratu behar da enplegu duina sortzera. Bestalde, gure sare industriala kontuan edukiko duen hezkuntza sistema eta politika sozialak behar ditugu: lanbide heziketaren alde egin behar da bai ala bai.

Juan Mari Arregi

Euskaraz eroso aritzeko entrenatzen

Helmuga: Lutxi borda, Donazarre (Nafarroa Beherea). Bidaariak: Nafarroa Behereko eskualde guztietako 36 euskaldun (kontzientziatu). Bidairen helburua: egunerokoan gure hizkuntzarekin erosoago eta gaituago ibiltzea, beste hitz batean esanda, ahaldunduago aritzea. Gidariak: Emuneko aholkulari diren Larraitz Madinabeitia eta Ainhoa Lasa. Bidairen izena: Telp tailerrak.

| TXERRA RODRIGUEZ |

AZKEN KORRIKATIK euskalgintzan bolo-bolo ibili dira ahaldundu, jabetu eta botereku kontzeptuak. Izate-tik egitera eta egitetik izaterako bidean. Baina aspaldi hasi ziren batzuk bide horretan. Eta horren lagin Ipar Euskal Herrian gure haragitan bizi izan dugun ahaldundu ariketa praktiko bezain kolektiboa.

Donazarreko Lutxi borda zen topaleku. Hara bertaratu ziren 36 lagun. Amikuze, Aldude, Irisarri eta Oztibarreko euskara elkarteek –Zabalik, Adur, Har´eman eta Laminosine, hurrenez hurren– elkarrekin antolatu zuten lehen ekimen-erako zen hitzordua: Ipar Euskal Herriko barnealdean garatu diren lehen Telp atelierrak.

Saio bietan probatu, jolas eta irri egin genuen. Hizkuntza-asertibitatearen bidean lehen urratsak ematen ikasi eta bi saioen artean lehen pausoak eman. Esate baterako, bi saioen artean parte-hartzaileetako batek bere senarrarekin hizkuntza ohiturak aldatzeko bidea hasi zuen. Oti 100era tarteko bide asko dau dela erakutsi zigun horrela.

Beste hainbat partaide ere hasi ziren saiotik saiora probak egiten. Adibidez, haietako bat oporretan lagun batekin joan zen. Lagun horrek euskara ulertzen du, baina hitz egiteko ahalkea du. Opor horietan, biek alde aurretik hala erabakita, telpariak euskaraz egin zuen beti –besteak berariaz eskatu ezan– eta



Egunerokoan euskara gehiago erabiltzeko eta euskaraz ari direnean erosoago sentitzeko bideak landu zituzten Lutxi bordan elkartu ziren baxenabartarrek.

bere lagunak frantsesez. Hasieran, kostatu zitzaion ohitzea, baina egunek aurrera egin ahala, gero eta erosoago eta gero eta finago aritu ziren.

Hori bai, handik egun batzuetara, jai egun baten kariatara, askoz gehiago kostatu zitzaion berari euskarari eustea. Izan ere, ahaldundu luzea da, inoiz amaitzen ez den prozesua da eta entrenamendua eskatzen du. Batzuetan helburuak lortuko ditugu eta beste batzuetan askoz zailagoa izango da.

Hemen eta han, han eta hemen berbak asko erabili genituen bi saio-

otan. Lehenengo saioan ziurrenik gehiago bigarrean baino. Izan ere, ezberdintasunak dauden arren, funtsean bizipen antzekoak ditugu ezarritako mugaren alde bietan. Lehen kolpean iruditzen zaiguna baino hurbilago daude gure bizipen, sentimendu eta emozioak.

Etengabe hautatu beharra

Parte-hartzaileetako batek kasurako, bere lankideekin hasi zuen (eusk)ahaldundu prozesua. Haietako batzuekin euskaraz aritzen da buruz burukoetan, baina talde osoan frantsesez. Gauzak aldatzen

hasi da, ordea: bazkalorduan euskaldunekin euskaraz egiten hasi da eta besteekin edo guztiekin frantsesez. Hasieran uste zuen txarto hartuko zutela, baina inork ez du ezer esan, inork ez du aurpegi arrarorik jarri, inork ez du gaizki hartu.

Beste alde batetik, euskaldunon hizkuntza ibilbideak gero eta bihurriagoak dira: ez dira linealak, ez dira etenik gabekoak. Hiztunok bizialdian zehar hizkuntzak ahaztu, galdu, berrikasi edo berreskuratu egiten ditugu, gero eta gehiago.

Arrunt zaila izan da ibilbide lineala duenik aurkitzea parte-hartzaileen artean. Askok etxean ikasi eta karrikan edo eskolan edo bietan erdi-ahaztu eta geroago berreskuratu. Beste batzuek, ordea, etxean jaso ez eta euskaltegian ikasi, espazioak irabazi eta batzuetan zer bait galdu. Beste batzuk kanpotik etorri eta bere egin. Denetarik. Gero eta gehiago. Gero eta bihurriago.

Horrek, zuzen, hautura eramaten gaitu. Ia euskaldun guztiok noizbait deliberoa hartu behar izan dugu, azken finean, guk baino ezin dugulako erabaki zer egin, elebazarrek ezin dute. Kasu batzuetan identitateagatik, beste batzuetan esan eta egiten dugunaren arteko koheren- tziagatik, beste batzuetan giroak edo estetikak bultzaturik. Denetari- ko arrazoiak. Baina beti deliberoa, beti hautua.

Bestela, inertziaren itsasoak badakigu nora eramaten gaituen ia oharkabea: erdaretara. Alde bietan kasu honetan ere. Guraria behar da, uneak eta guneak bilatu

behar dira, lagunak eta aliatuak aurkitu behar dira.

Adibidez, Telp tailerren bigarren saioa amaitu orduko, parte- hartzaileetako batzuk Garazira joan ziren ostatu batera. Hasiera batean, ostatu euskaldun baterako plana zuten, baina iritiz aldatu, eta denak batera ostatu ez-euskaldune- ra jo zuten, Telpetan ikasitakoak praktikan jartzera. Kolektiboki. Elkarri lagunduz.

Telp tailerretan geure buruari euskara plana egitea galdegiten zaigu. Praktikak helburu dituen euskara plana beti ere

Elebitasun sistematikoaren tranpak ere agerian geratu dira. Alde bietan, euskara beharrezko egitea inportantea da, funtsezkoa, ezin- bestekoa, aurrera egin nahi badugu. Euskarak funtzio propioak eta eksklusiboak izango dituen espazio- ak, uneak eta guneak sortzea eta elikatzea beharrezkoa dugu alde bietan.

Bestela, elebitasun sistematikoak ez du sekula lortuko erdaldunei ikusaraztea zer bait ari direla galtzen. Ez du sekula lortuko gureak baino indartsuago eta sendoago diren komunitateen aurrean gure burua tente izatea.

Esate baterako, telplarietako bat hautetsia da. Herriko Etxean ez dute itzulpen sistematik, eta orduan berak bere burua itzuli behar du

egiten dituen jendaurreko berbal- dietan. Orain arte batzuetan euska- raz egiten zuen, baina ez zen eroso aritzen, urduri jartzen zen. Telp saioen ondoren, ostera, irribarrea ahoan eta alai egin ditu euskarazko adierazpenak eta gero poliki-poliki eta laburtuz frantsesezko itzulpena. Dotore eta tente.

Izan ere, Telp tailerretan geure buruari euskara plana egitea galde- giten zaigu. Praktikak helburu dituen euskara plana beti ere. Non erabil dezaket orain baino gehiago? Nola erabil dezaket hizkuntza orain baino erosoago?

Lotsak eta plazerak, denak batera

Alde bietan beldurra, frustrazioa eta lotsa sentitzen ditugu, plazera, gozamena eta harrotasuna ere sen- titzen dugun arren. Bi sentimendu mota horien arteko dantzan aritzen da euskaldun kontzientea.

Parte-hartzaileetako batek, adibi- dez, aipatzen zuen berarekin jende askok euskaraz egiten zuela, baina horiek eurek bera ez bazegoen fran- tsesez aritzen zirela lasai arraio. Horren aurrean, berak beti sentitu izan du ezinegona. Saioen ostean, aipatzen zuen orain gauzak beste begi batzuekin ikusten dituela. Bere burua lagunarte hori euskalduntze- ko eragileztat hartzen hasi dela, hain zuzen ere.

Baina, tira, ibilaldi hau hasi baino ez da egin. Prozesu luzea da ahal- duntzea eta tailerra abiapuntua baino ez da. Hala ere, azken arike- tan ikusi genuen modura, pertsona batek jarrera aldatzen badu, bere ingurua ere aldatzen du neurri batean. ■

Animalia (areto berria)

Natura ezagutu, errespetatu eta zaindu egin behar dugu
Eureka! Zientzia Museoa - 943 01 24 78 - eurekamuseoa.es - Donostia






Ezkertiar estetikaz mobilizatzen da eskuina orain

Betiko familiaren aldeko manifestazioek Frantziako Estatuan irudikatu dute halako 68ko Maiatz kontserbadore bat. Uhinak sustraiak eduki ditzake globalizazioak herritar askorengan eragin duen panikoan eta azken urteotan kristau katolikoen artean indartu diren talde karismatikoetan. Ezkerrari ostu dizkiote hizkera eta kalearen monopolioa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

68KO MAIATZ KONTSERBADOREA historiako liburuek irudiztatuko dute *La Manif Pour Tous* (Denendako *manifa*) mugimenduaren argazkiren batekin: 2012-2014, aspaldiko partez, milaka herritar karriketan mobilizaturik balio tradizionalen alde. Frantziako Estatuan kontrairaultza kontserbadorea aldarrikatzen duten indarrak elkartu eta kalea mobilizatzeko behar zuten porlana bikote homosexualen ezkontzaren legearen kontrako erreakzioetan aurkitu dute.

Berrikitan bi liburuk aztertu dute fenomeno. Gaël Brustier zientzia politikoetan doktoreak *Le mai 68 conservateur. Que restera-t-il de la Manif pour tous?* plazaratu du. Danielle Tartakowsky historialariak *Les droites et la rue. Histoire d'une ambivalence, de 1880 à nos jours*. Louise Déjeansek laburbildu ditu *La Vie des Idées* gunean.

La Manif Pour Tous izan da Brustierren hitzetan “kulturazko hegemonia lortzeko borroka”. Azkenean, homosexualen ezkontzaren kontrako oposizioak arrazoibide askoz zabalago bati koherentzia ideologikoa eman dio.

Jendearen erreakzioaren sustaia dago soziologo anglo-saxoiek aipatzen duten *paniko morala*: gizartearen balioetan eta bizimoduetan gertatu diren aldaketa sakonen

ondorioz zabaldu den ezinegon orokortua. Frantziako Estatuari dagokionez, mundializazioak eta Europa politikoaren eraikuntzak, nazio-estatua ahulduz, herritar kontserbadoreen egunerokotasuna eta sinbologia desestabilizatu dituzte.

Mobilizazioetako parte-hartzailen artean proportzioan asko dira katolikoak, ikasketadunak, hiritarrak, klase ertainekoak edo aberatsak. Mugitzeko beharra sentitu dute gizartearen baitan indarra galtzen ari direlakoan. Ezinegona irakiten hasi da Nicolas Sarkozy hondoratuta gobernuan sozialistak sartzean.

Baina mugimenduok ezin dira ulertu eliza katolikoan 1960tik egosten aritu diren mugimendu kontserbadore berriak kontutan eduki gabe. Gizartearen sekularizazioaren kontra ugaritu dira korrante espiritualista *karismatikoak*. Joan Paulo II.ak (Karol Wojtyła) joko handia eman zien karismatikoei, ordura arte kristau aurrerazaleen eta tradizionalisten arteko liskarrak gainditzeko balio zutelakoan.

Homosexualen ezkontzarekin kaleak berotu baino askoz lehenago ari ziren karismatikoak lanean bioetika eta sexualitateari buruzko eztabaidetan. Eskuineko beste mugimendu tradizionalekin elkarlanean, *betiko* ideia kontserbadoreak

Radioespace gunetik hartutako argazkian *La Manif Pour Tous* mugimenduak Parisen antolatutako manifestazio bateko irudia. “Haur guztiak sortzen dira libre eta eskubidez berdin” dio gazteek daramaten pankartak. Eta hizki txikiagoetan: “Haurra = Aita 1 + Ama 1”. Bikote homosexualen ezkontzea eta haurrak edukitzea galarazi dakien eskatzen du leloak. Frantziako gobernu sozialistak 2013an bi eskubideok homosexualen ziren mobilizazio handiak Parisen eta Hexagonoko hiri nagusietan, Europako beste herrialdeetara ere zabaldut. Betiko familia tradizionalaren defentsa eta generoaren teoria eskoletan sartzearen kontrako erreakzioa izan dira mugimendu kontserbadore berriaren goiburua. Globalizazioak eragindako aldaketa izugarriek jende askoren artean *paniko morala* zabaldu dute, balio tradizionalak itzultzeko joera handituz.

hizkera eta tonu modernoagoz aurkeztea lortu zuten, mobilizazioetara militante eta aldeko gazte berriak erakarrit.

Benito XVI.aren (Joseph Ratzinger) agente garaian ordura arte bazterturik egondako katoliko tradizionalistak hurbildu ziren mugimendura. Baita 2000.etik nortasun frantsesa ozen aldarrikatzen duen Bloc Identitaire talde ultraeskuindarrekoak ere.

Eskuineko ekologistak

Ecologie humaine zigilupean, diote bi ikerlariok, ideia kontrairaultzaile eta antiliberalak defenditzen dituzten jendeak aurkitu daitezke ingurumenaren aldeko mobilizazioetan, ekologia lotuz eutanasiaren eta abortuaren kontra egotearekin.

Ekologistengana hurbildu diren kristau tradizionalistek erreportaje adierazgarria eginga du Martin Bresisek *Basta!* magazinean: “L” *«écologie humaine», nouvel avatar de la droite conservatrice et catholique pour promouvoir ses valeurs morales*”. Moral kontserbadorea eta bioaniztasuna nola uztartzen dituzten ulertzeko balio du.

Ekologia humanoaren nozioak eman omen dio koherentzia *La Manif Pour Tous* mobilizazioari. Eta horretan garrantzia handia izan du generoaren teoriaren inguruko eztabaidak, ezkontzaren inguruko pole-



mika erlijioaren arlo estutik atera eta kultur identitatara eta gizarte eredu osora zabalduz.

Genero nortasunaren inguruko solasak gune oso berezitueta mugatzen diren arren oraindik leku gehienetan, Frantziako estatuan 2012tik eztabaida publikoan sartze-ira iritsi dira. Konparazio bat egiteko, Donostian etxebizitza hutsen gaineko zergaren kontrako egonezina eragin badu urteotan Kontxako hondartzan egunero grabaturik azaltzea “Ez IBI150 No” leloa, 2014eko udan Britainiako Brest inguruan autopistan baziren pankartak “Non au genre” esaldiarekin. Generoaren teoriari ez.

Tartakowskyk historian kokatu ditu Frantziak hiru urteotan ezagu-

tu dituen mobilizazioak. Kalea ez baitute berdin erabili eskuinak eta ezkerak.

1930eko hamarkadatik 1970ekora manifestazioak nagusiki ezkerren kontua izan dira, eskuina kalea mobilizatzeko uzkurrago zen. Ezkerrek bazuen halako estilo bat karrikak astintzeko. Ezkerren manifestazioak kokatzen ziren memoria kolektibo eta aurrerazale batean, aurreko mobilizazioen oroimenarekin lotuz. Aldiz, Tartakowskyrentzako, eskuin antolatuak historian txertatu gabeak ziren, aldi bakoitzean une hartako beharri erantzuteko.

Baina 1980tik aurrera ezkerreko eta eskuineko mobilizazioek elkarren gero eta antza handiagoa hartu zuten. Eta *La Manif Pour Tous*en

antolatzaileek espreski ezkerreko ikonografia berenganatu zuten, banderolak direla, girotzeko musika, eszenografia... Mugimendu sozial aldarrikatzaile eta moderno baten tonua eman zioten, kaleko lis- kar erradikal eta kontrolik gabeko- en itxura ezkorretatik ondo urrun- tzea lortuz.

Dio Tartakowskyk gaur egun manifestazioak oro, izan eskuineko edo ezkerreko, defentsiboak direla eta ez dutela historia kolektiboa gogoratzen. Mugimenduen histo- riarekiko urruntzea ulertzeko kon- tutan hartu behar da indibidualiza- zioa gaur fenomeno globala dela.

Ezkerraren kasuan, 1995etik hona antolatu dituen mobilizazio ia guztiak sindikalak izan dira eta hel- buru nagusiztat zeukaten eraisten ari diren ongizate estatua defendi- tzea. Katolikoek ere beti izan dute kalea okupatzeko joera, erlijiozko erritoengatik dudarik gabe (proze- sio, erromesaldi...) baina baita hez- kuntza sistemaren inguruan ere.

Azken urteotan, ordea, mugi- mendua antolatu dute gizartea osorik ukitzen duten gaien ingu- ruan: generoa, giza gorputza, giza- kia. “Katolikoak –dio Tarta- kowskyk– modu berrietan antolaturik asmatu dute ezkerre- ren manifestazio jendetsuen kodeen jabe egiten, eta hori buru- raino eraman dute mobilizazioa- rentzako ‘*manif*’ hitza berengana- tuta. *C’était une splendide OPA*”.

OPA euskaraz da EEP: Eroste- ko Eskaintza Publikoa, burtsako ope- razio bat, non sozietate batek beste baten kontrola hartu nahi duen. Eskuinaren EEPa ezkerriari. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Askatasuna, pluraltasuna, garapena

MINA egitera joan ziren eta horrekin euskal hedabideen komunitatea mindu zuten, hor da koska; medio batean edo bestean idatzitakoa balitz, iritzi askatasunaren esparrukoa litzateke eta kito.

Kazetari, kultura eta politika munduko jende askoren erreazioa azkarra izan zen Arrasaten *Goienako* egoitzan hedabidea EAJ-rekin parekatzen zuten pintadak agertu zirenean. Egiazkoak ez izateaz gain, bere lana kazetaritzaetik eta zintzotasunetik egiten duen media da *Goiena*. Horregatik du debagoiendarren hain sostengu zabala, eta euskal hedabideen artean horren onarpen sendoa, Euskal Herriko tokiko hedabideen sehaska izateaz gain, asmatu duelako bailara honek behar zuen komunikazio proiektua garatzen.

Era askotakoak eta pluralak dira euskarazko hedabideak, eta esparrua pluralagoa balitz are eta hobeto, euskararen eta hedabideon bizi-indarra bestelakoa bailitzateke abertzaletasunetik harago ere indartsu balira. *Zabalik* edo *Aldaketa 16* bultzatu zutenak, esaterako, proiektu haietan koska guztien gainetik tematu izan balira, gure sektorea indartsuagoa litzateke egun. Dirurik bederen ez zitzairen falta haiek bideratu zituzten enpresa mundu eta esparru sozio-logikoei. Zer falta zitzairen orduan?

Kontua da bide hori ez dela diruz bakarrik egiten, hori baino garrantzitsuagoa dela norbere munduaren berri emateko gogoia eta engaiamendua. Euskarazko hedabideetan badira ezkerterago-ko joera dutenak, edo egungo gizartearekiko joera eraldatzaileagoa agertzen dutenak; beste batzuentzat ez da hori hain garrantzitsua; tokikoetan badira

informazioa “kutsu gabe” islatzen dutenak; eta publikoetan, agintzen duenaren eskua nabari ohi da.

HAUTESKUNDEETAKO adibide batek balio dezake gure mundurako ere. Gipuzkoan EH Bilduk asko galdu eta EAJk asko irabazi izanak berriz jarri du mahai gainean eztabaida zaharra: nola eragiten da gizartean? Gizartea jarraituz azpimarratzen du EAJk; gizartean aldaketa saiaturaz EH Bilduk.

Konplexua da gizartearekin, atzetik, parean edo aurretik egin beharrekoaren hausnarketa, baina euskarara etorruta, gizartea jarraitzeak hizkuntza desagertpena eramango luke. Hau da, ez dira egun dauden euskarazko hedabideak esan behar dutenak PPko De Guindos eta Wert ministroak zein ondo aritu diren; haiek sortu behar dute hori dioen euskarazko hedabidea. Pluraltasuna hala egiten da.

Ez dira egungo euskarazko hedabideak esan behar dutenak PPko De Guindos eta Wert ministroak zein ondo aritu diren

Atzera edo aurrera egingez, gizartea faktore askorengatik aldatzen da, ekonomikoak, sozialak, politikoak... eta hor, komunikabideak aldaketa horietako kate-begi bat gehiago dira, gizartean diren adierazpide eta indar oreken ispilu eta akuilu aldi berean. ARGIAren ia mende bateko bizitza aztertzen duenak, adibidez, parekotasun eta desberdintasun asko ikusiko ditu medio beraren ibilbide luzean.

Euskaldunok beharrezkoa dugu boteretik bultzatutako euskarazko komunikazio zutabe sendoa. Gizartean baldin badu sustairik garatuko da. EITB izan daiteke horren erakusle, baina honek, azken 35 urteetan izan duen garapena izan du, handia bere sorreratik, baina konpara ezina denbora berean gizarte ekimenetik garatu den zutabearen aberastasunarekin. Gizartetik sortu dira eta sostengu instituzionalak lagundu ditu. Hor da klabea, hor da aberastasuna eta hor etorkizuneko euskal komunikazio esparruaren garapena: zutabe publikoa eta herri ekimeneko zutabea, biak garrantzitsu eta biak ezinbesteko, baina duen aberastasuna eta erakusten duen garapen indarragatik, herri ekimenekoa gehiago zaindu eta babestu beharrezkoa, bai diruz, bai haien askatasuna errespetatuz. Honek balio du gobernuentzat, alderdientzat edo herritarrentzat.

HORREGATIK iaz baino kontu handiagorekin ibili beharko litzateke diru-laguntzen inguruan. Alde horretatik garrantzitsua eta klabea da instituzioek –gertatzen ari den moduan– bidea euskal hedabideen sektorearekin batera egitea eta honek dioena kontuan hartzea.

Herri ekimeneko hedabideen ekosistema aberastuz doa oro har kontsumitzaile gehiago erakartzeko gai delako, eta horregatik behar ditu dezente baliabide gehiago ere, esparru honek ziklo historiko batean edo bestean dituen ezauzgarrien eta gobernuen kolorearen gainetik. Garrantzitsua euskarazko komunikazio esparrua bada behintzat. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat

GARRAXI



TABERNA

**Garraxi
jatetxea**

Bi pertsonentzako
otordu bat

Tejeria kalea 9 - Donostia
Gipuzkoa

1

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA
www.ekainberri.com

2



**Jorge Oteiza
Fundazio
Museoa**

2 lagunentzako
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

3



**Orube
abandotantuak**

Garazi Kamino

2 liburu opari

www.elkar.com

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2463. Argia)

FARINA JATETXEA

Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)

AQUARIUMA

Azkune Arrizabalaga Sendia (Azpeitia)
Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
Aitor Altuna Etxabe (Hernani)

LEINTZ GATZAGA

Olaia Elortza Iñarra (Zegama)
Eduardo Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

KUPELA

Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)
Irene Iturbe Arriola (Aretxabaleta)

ILLIMANI

Portugaleteko Aek Euskaltegia (Portugalete)

gunea

argia

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea



* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



Harian-arian erabakia josi

GURE HERRIA, GURE ESKU

